Jose Luis Otamendi

Euri kontuak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1999 Jose Luis Otamendi
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1999ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Silvestre Otamendiri

Rusoa

Mobilizazio deia egin eta hilabetetsura alde egingo zuen Borisek gure artetik. Gogotik txalotzen genizkion jokaldiak, kaioen hegaldi astiroa lur hartzean nola, halaxe ospatzen zituen golak. Hanka-zain bizkorrekoa zenuen, talde lanean ona, burua zein zangoa baloirik gaitzenari luzatzeko gertu beti. Ostikolari bikaina.

Etorri orduko hartu genuen geuretzat. Arrotz zitzaigun haren mintzoa, baina maite genuen, txori kantua egiten genuen doinu apal eta ilun hura, gure fantasiak janzten zuen esanahi ederrez haren hitzen molokin lakarra. Halaxe, deblauki, etxekotu zitzaigun, gogoan txertatu eta harrezkero gurean sasoi bikainen gomuta dei egiteko manera da Borisen hizpidera ekartzea.

Begiratua zuen tristea, beti norbaiten esperoan egoteko sortua balitz bezala, harri batena legezko grina etsi ezinarekin, eta eskuak handiak udazkeneko zerua lakoak.

Kazetariek goitizenez deitzea gurago izaten zuten, *Otso urdina, Kaukasoko Tsarra* eta itxura-

gabeagoak ere bai, baina Boris zen guretzat. Inork min egin nahi zigunean *Rusoa* deituko zion, eta guk segikadak egiten genizkion, astintzeko ez bazen, harrika emateko bederen. Artean ez genekien ia ezer nazioarteko politikaz; hala ere, esateko era errearengatik susmatzen genuen zerbait txarra behar zuela, destaina modu bat *Rusoa* esate hark. Bi urtez segidan bosgarren geratu zen golegileen zerrendan.

Herrian elkarte bati bere izena eman zioten. Lehenago Ixtingorra kultur elkartea zena Peña Boris izenez bataiatu zuten. Orduak ematen zituen han. Bertan egin ohi zuen afari legea ia egunero. Arrautza parea txorizo mutur batekin. Egokitu zitzaigun inoiz han ikustea, erromesen antzera inguratzen ginen boriszaleok hara.

Denboragarrenean, baina, joateari utzi zion haserre bat bitarteko. Eta berriro izena aldatu zioten elkarteari, horrela berpiztu zen Ixtingorra.

Esan zuten Boris bere betiko mahaian afaltzen ari zela, bakarrik, barreneko aldean, erdi ilunean, gizon bat elkartean sartu zenean, besoan alfonbrak zituela. Bazkide bakan batzuk baziren bertan. Bodegero egiten zuenak eraso omen

zion saltzaileari. Lepazamarretik heldu eta ostikoka atera zuen. Kopeta belztu eta jaiki da Boris marmar batean, inork ulertu ez zizkionak bere mintzamolde ilunean ebakiz. Hartu du eserita zegoen zurezko aulkia eta paratu da elkarte atarian, bere izena idatzia zuen kristal landu handiaren aurrean. Indartsu, amorruz jaurti zuen aulkia. Hegan egin omen zuen, kaioek ur azalera nola, beirazko ortzi tenkatuari buruz. Milatxiki eginda kazkabartu zituen zoruan elkartearen txirtxilak. Denek ulertzeko moduan egin omen zuen alde Borisek. Tente, isilean. Gizandi bat erne zitzaien gure begiei.

Kaukaso aldetik gerra albiste beltzak heltzen hasi zirenerako Boris laugarren denboraldia betetzekoa zen hemen. Prentsak albiste-gose zirikatzen zuen iritzia eman zezan, bazekitela familia han zuela, bere herria suntsitu zutela ia, kaleetan hildakoak zakurrek jaten zituztela. Eta uzkur ageri zen beti, baita, txarrera, norbaitek ea *Rusoa* zergatik deitzen zioten galdetu zionean ere. Futbolari buruz itaun egiteko erregutzen zien kazetariei erdi totelez, futbol kontuetan

nahi adina hitz eginen ziela. Eta negute sarkor batek hartzen zuen Borisen begitarte ederra.

Egundo ikusi gabeko esnea atera zuen adiskidantzazko partida hartan. Bi gol sartu zituen, min eman arte besarkatu zituen taldekideak, hegaldi eroak egin zituen sosegatu ezinik belar gainean. Xelebre begiratzen genion elkarri, algaraz eta txaloz hartzen zituzten zaleek Borisen komeriak eta grina zoroa. Guk, aldiz, bagenekien ez genuela berriro ikusiko gure elastikoarekin, alferrik saiatu ginen berandura arte autografo bila. Errietan eman ziguten etxean.

Gerrara joan zenean auzitara eraman zuen gure direktibak hitzartutako kontratua bete ez zuelako. Halako batean, ordea, gerra amaitu egin zen, gauza gehienak bezala.

Futbolerako onenak emanda baina osorik atera zen Boris. Italiako bigarren mailan ari zela esan ziguten. Igande arratsaldeetan partidak ikusteari utzi eta neskatan saiatzen hasi ginen sasoitsua zen. Ez zen berriz etorri. Beranduegi gure maitasunarentzat.

Ardoa baino ez

Ardo hark gure mahairainoko bidea egin zuen. Ez dakit zelan baina han zegoen mehe, ilun eta gozo gure edalontzietan, lurrin gorrantza eta bristada odolkara zeriola. Itsaso sakon eta urrun batetik jaulkitako edabea zen, luzaroan jeinu baten gisa jaregin zezaten egon-egona.

Igande arrunta zen, izeba Eulalia gonbidatua genuen bazkaltzera. Ohitura zuen zerbait ekartzekoa, berak egindako opilen bat, etxerako apaingarri xumeren bat, loreak sasoian, ardoa.

– Zoko batean agertu zait, eta alferrik galduta ez badago edango duzue –bere-berea zuen irribarre herabearekin ekin zion izebak sukaldera orduko.

Fuenmayor zioen txartelean, eta uzta 1939. urtekoa zela. Artean gu jaiotzeko hogei bat uzta falta zirela eta Espainiako gerra amaitu berria etorri zitzaizkidan burura, atximurka gazi-gozoa eginez bihotzean.

Emazteari eta bioi gustatzen zaigu ardoa etxean. Izeba ere zalea zen, eta edan ere edan-

go zukeen sendagilearen epai atzeraezinak galarazia ez balio hirurogeita hamabigarrena bete zuen zorigaiztoko egunaz geroztik.

– Medikuek tristuraz hil nahi gaituzte –esaten zuen gurean ia igandero–. Marka da, gero, gaixoa bezala bizi behar osasuntsu hiltzeko.

Guri, berriz, areagotu egin zitzaigun ardoarentzako isuria azken boladan. Pixka bat gogoan arakatzea aski du edonork muturra berotzeko aitzakia zoragarriak topatzeko. Lanean nagusiak estu hartzen gintuela, umea izateko itxaropena galdua genuela ordurako, nekeak joa zuela elkarrenganako grina, urteetan aurrera gindoazela... Horiek guztiak egia izanik ere, hainbeste izan daitezke edanzaletu gintuzten gertaera oreka hausleak, joera neurtu ezinak, bulkada laxoak.

Emaztea gulak banatzen ari zitzaigunean jo nion lehen zangada luzea. Aho-sabaia gozatzen apur batean ibili ondoren eztarrian behera ardoaren epeltasun atsegina sumatu nuen. Horretara aski ohituta nengoen, baina urdail zuloan sentitzeaz batera izan nuen ikusmen harrigarri haien lehen txinparta eta zigorrada.

Mahasti bat, lur gorria eta begirada larriko gizonezko bat. Bala zorro bat bezain hutsa sentitu nuen barrena eta ez nuen besterik edateko adorerik izan.

– Ederra dago izeba, baina zerbaitek ez dit onik egin –izeba Eulaliak eskertu zidan azalpena.

– Afaltzen akaso...

Botalarriak ez zidan komuneraino heltzeko betarik eman. Zorrotz agindu nion emazteari ardo hartatik ez edateko eta ez botatzeko inola ere. Bazitekeela beste edozerk kalte egin izana. Loak hartu ninduen ohera sartu eta gutxira; ordubetegarrenean edo zakila gogor eta aldarte onean jaiki nintzen atzera.

Eskuz banakako lau koadro eta erdiko txapelketako final laurden bat ikusi genuen telebistan eta igandero legez, izeba Eulalia lagunetara joan zenean, larrua jo genuen telebistaren argitan, grina handirik gabe baina elkarren itoiteak astean behin bederen arakatzearen pozarekin eta nolabaiteko premia neurtuaz.

– Bihar Biasterira noa –esan nion emazteari kuleroak emateaz batera.

– Morrinengana?

– Bai, lau bat garrafoi ekarri nahi ditut.

Parada-paradan egokitu zitzaidan Biasteriko urteroko txangoa hilabete batzuez atzeratzea. Ordurako banekien Fuenmayorren behar zuela ardoa edatean ikusi nuen mahasti hauskara, fusilatuaren besoetan sehaskatutako hustasun hura, banekien lehenbailehen hara behar nuela.

Abiatu aurretik gehiago ikusten ahalegintzera deliberatu nintzen. Sukalde bazterrean eseri eta ase ederra hartu nuen ardo hartatik. Emaztea ez da aise larritzen denetakoa eta jarrera aski barregarrian aurkituko ninduen, izutu egin zen eta.

– Baina, baina Julen, arima baino zurbilago zaude. Sar zaitez ohera!

Nik hitzik egin gabe eraman omen ninduen logelara, han eldarnio batean bakarrizketa ulergaitz bati lotu nintzaiola, lo-ero batean nengoela, eta negarrari ere eman omen nion emaztearen gerriari oratuta.

Goizeko ordu biak jota ziren kordea bere osoan itzuli zitzaidanerako. Emaztea zurrunga batean nuen alboan eta ilunpean, itsu-itsuka egin nuen komunerainokoa. Aieru gaiztoz, mes-

fidati begiratu nion neure buruari ispilutik. Txoil horditu nintzen, besterik ez. Izebaren ardoak galdua zuen estreinako eragin miresgarria. Ardo ona baino ez zen zegoeneko. Eta ajearen argitan hala biktima batena nola hiltzaile baten soslaia izan zitekeen nirea; aspaldi erabaki nuen, ordea, oso-osoan ez nintzela ez bata eta ez bestea izango eta, denok bezala, banuela nik ere bietarik ukitua.

Labur iritzi nion Biasteritik Fuenmayorrerako bideari. Behin eta berriz zetorkidan gogora fusilatuaren irudia eta mahasti ilun hura, nire begien aurrean aspergabe agerraldi tragiko beraren sekuentzia bera etengabe berritzen zutela. Mutu heltzen zitzaizkidan irudiak, gizon bat berunezko konfiteen pean lur gorriaren gainean jausten, eta niri begira. Bolantearen ordez fusilaren burdin hotza nuela eskuetan sortu zitzaidan halako batean, ni neu nintzela oilarrari sakatzen ziona; hurrena, berriz, bala zorroak jasotzen ari nintzela agertu zitzaidan neure burua, eta adore ematearren bizkarrean jotzen ninduten aurpegibako esku hotzek.

Halabeharraren mende bilatzen nuen neure burua. Duela hirurogei urteko Errioxako ardoa edatea suertatu zitzaidan, hortik ikusmen harrigarri hura, besterik ez. Ez nion bestelako loturarik ezarri gura gertatu zitzaidanari, 1939ko Fuenmayor nire garaitik eta nire barne geografiatik at zegoen erabat. Hala ere, erakarmen indartsu hari ihes egiten ez nuen asmatu. Zorra nion lur hari, zorra nion fusilatu ezezagun hari.

Cenicerotik aurrera Fuenmayor baino lehentxeago, malda leun baten eskuinera gelditu nintzen. Bertan nuen bezperaz geroztik sosegua kendu zidan irudien gertalekua. Hostotsu eta berde zeuden aihenak.

Autotik atera eta mahastian aurrera egin nuen. Udaberriaren azkenetan izan arren, hotz jotzen zuen haizeak hostoei isilkari mintzaraziz. Mahats landareez inguratuta nengoen, Gulliver berritu eta are arrotzago bat nanoen erresuman bezala. Baina Liliput mutu eta hustu haren lozorro zorabiatutik atera ninduena euriaren erasoa izan zen. Euri tanta hotzak sumatu nituen aurpegian, *«giro aproposa ohartu gabe negar egiteko»* egin nuen neure kautan. Lekua, eszenatokia,

aurkitu banuen ere denboraz erratuta nenbilen. Ordukoan sargori ustela behar zuen, ordukoan lurrak beste modu batera taupatzen zuen, lurrak odol-gose ematen zion aurpegi ortziari, eta hondarreko tiro hura ozen ari zen esaten uzta bildua zela zegoeneko, han ez zela niretzat ez mahatsaren orpotik, ez gizonaren lanetik sortutako ezer jasoko haboro.

Orain, baina, ez zebilen inor inguruan. Zerua itsu-itsu jarri zen. Bustitasunak hurbildu egiten zizkidan neurriak, kolore festa bat ziren mahastiak. Gurpil handiko traktore bat zetorren soroen kareletik tar-tar-tar batean. Ez nengoen inorekin hitz egiteko, ez azalpenik emateko. Autoari pixkat sakatzen banion oraindik Leintz-Gatzagara garaiz hel nintekeen bazkaltzeko.

Makurtu eta atzapar biak sartu nituen lur heze gorriminetan. Mutiri begiratzen ninduen lurra baino ez zen. Neure burutazioen amildegian jausiak nituen bezperako irudiak eta arestiko errezelo beltzak. Ulertzen jakin ez nuen mezu larri baten hartzaile suertatu nintzela sentitzen nuen. Fusilatu bat besarkatzeko besteko bihotzik gabeko lekuko soraioa nintzen.

Musuzapia zabaldu eta eskukada bete lur hartu nuen. Eskukada bete lur ostu nion nazio handi bati. Auto barrutik ikusi nuen traktorea berriro urruntzen, mika ale batzuk airatzen. Atertzera egin zuen. Amets egiteko zerbait gordea nekarren.

Matxura

Ricardo Sanchezek bazekien autoa inon geratzekotan tankera hartako aldiriren batean geratuko zitzaiona. Aspaldikoa zuen aierua. *Uretamendi. Otxarkoaga*. *Masustegi...* Auzategion izena gomutara ekartze soila aski zuen keizua zer den ikasteko. Beharraren kariaz sarri-sarri igarotzen zen gisako auzoetatik eta, jakina, dabilenari gertatzen zaio. Beti etortzen zitzaion gogora, *Orain hemen ez atzera ez aurrera geratzea baino bi tiro hartuta nahiago*. Bazter-auzoetako paisajea beldurgarri zitzaion. Adurraren amarrutik zuen asko, nahiz eta matxura arrunta iritziko liokeen edozeinek. Etxe-sail pilatu arrotz haiek. Leiho estu bizigabeak, aurpegi salatariak noiz agertuko. Eta han eta hemen eskegitako arropak, sekulan ezagutuko ez diren banderen peko kanpaleku anonimoak. Ezin barkatuko zioten behin eta berriz auto dotore hartan miseria hura guztia zeharkatzea ezikusia eginez, ordain-saria zein zatekeen ez jakinda hobe. Saihesbideak, autopistak ez al ziren asmatu horretarako, arinta-

sunaren aitzakian, mingarri zitzaigun munduaren alderdi bat dokumental batean bezala ikusteko auto barruko kristalaren aterpetik. Zertarako bestela horrenbeste diru eta neke xahutu.

Delkoa edo bobina, autoak etxetik urrun utzi zuen Ricardo Sanchez, auzo galdu baten erdian, ilunabar aldean.

Behin eta berriz martxan jartzen saiatu zen; ez alferrik. Autoa, kilometroak haizeak bezain arin jaten zituen errealitate birtualetik gerturago zegoen tresna miragarri izatetik, gogoan zurrundutako Erdi Aro sakon bateko gotorleku bilakatu zitzaion. Mehatxagarri zitzaion bere arnasa, eta taupadak, beste norbaitenak balira bezala, urrunetik heltzen zitzaizkion. Beldurrari gaina hartu beharra zion haatik. Minutu luzeak zeramatzan ispiluetatik zelatan: ezer ere ez. Azkenean gaztelutik ateratzera deliberatu zen, zaldun bati zegokionez. Bi pauso eman eta areka zuloko zarata ezezagun batek atzera auto barrura bihurtu zuen. Begi biren bristada sumatu uste zuen kamio ertzeko ezponda gaineko sarean. Lapurrak.

Izerdi larriak bustiak zizkion esku ahurrak. Etsita zegoen. Kosta ahala kosta, kanpora behar zuen. Irribarre bat eskaini zion bere buruari adore ematearren, eta mundu oso bati agur egin ziola otu zitzaion atea giltzatu zuenean. Aurrera egingo zuen laguntza bila, autopista bat izanda ezin zuen urrun egon deia egiteko postuak. Bideak malda behera txikia egiten zuen, etxe gehiago zegoen alde hartan bestean baino, argiago zen bere ilunean. Barruak jaten zizkion autoa horrela utzi beharrak, inoren eskura. Ricardo Sanchez ez zegoen erraztasunak emoteko, estratega sena erne zitzaion, kapota ireki eta bujiak kenduko zizkion. Badaezpada. Zailtasun guztiei aurpegi emateko gertu zegoen. Pentsatu zuen etxe sailetatik nola ikusiko zuten, eskuargi bat errepideko beltzean kulunkari, potin ziztrin bat itsaso zakarraren mende.

Atezuan egin zituen lehen pausoak, nondik zer arrisku berrik erasoko. Bere arnasaren hauspo berotuak bakarrik ematen zion haizea egonezin tarrapatari hari. Oso berandu zen, nahi izan balu auzorako sarbide modukoa zegoen bihurgune itsu hartan, baina txakur zaunka aditu eta ibi-

lera bizkortu zuen. Norbaitek txakurra isilarazi eta berari hots egiten ziola ere iruditu zitzaion, bururik bueltatu gabe korrikari eman zion aurrera; ez, paraje hartan ez zuten harrapatuko, ezta amak karraxi batean deituko balio ere. Gainera beste kateko txakur bat zerabilen bere baitan adausi zoroan, tantaka-tantaka bere beldurraren galdaran irakindako odol lurruntsua zeriola muturretik.

Bi bat kilometro inguru egin zituenerako luze iritzi zion ibilitakoari Ricardo Sanchezek. Berriz deitoratu zuen snoben gauzatzat jota eskuko telefonoa erosteari uko egin izana. Larrialditako postuak kilometroko bat izaten zirela ikasia zegoen. Beraz bazen oker zebilen zerbait. Eta ezin zuen inola ere atzera egin.

Eskuargiak itsututa zihoan eulia ematen zuen Ricardo Sanchezek argiari segika, aldiz oilo baten neurriko eulien zunburrun itoa jo zitekeen haren arnas-estua, aldiz hegal hots nekatua haren oinetakoena autopistako zoru beltza zanpatzen. Hiriko azken argiak atzean ziren, atzean azken lantoki eta biltegiak, autopista betean zihoan aurrera, aurrera egitea beste helmugarik

gabe. Zaldun bat bere adurrarekin bat egitera abiatua. Bihotza beste armarik gabe munduari kopeta emotera. Orduak ziren, mendeak autorik igaro ez zela, ez norabide batean eta ez bestean. Lur hartzear zen hegazkin baten argira joan zitzaion gogoa, eta errukia sentitu zuen. Autopista batean hura izango zen kirikinoen eta gautxorien tenorea, erresuma menderagaitza. Pentsatu zuen bere auto bikainak aspaldi behar zuela setiatua baina irribarrea loratu zion bujien amarruaz oroitzeak. Garaipenaren mikatza. Eskuargiak indarra galdu zion eta eguna argitzetik urrun zen.

Aurki geratuko zen argirik gabe gauminaren morroi. Errepideko babes-barandari jarraituko zion orduan, astiroago ibili beharko zuen, izterrarekin ez zenean eskuarekin taxuka bizpahiru pausotik behin-edo baranda bilatuz. Errepide hartan urteak zeramatzala konbentzitu zen Ricardo Sanchez. Etxekotasunez erreparatu zien gaueko zarata ordura arte arrotzei, usain sarkorrei. Bertakotu egin zen, truke modu bat-edo gertatua behar zuen nonbaiten, bera harako izango zen aurrerantzean eta betiko desager-

tuak ziren kamio hartatik autoak, peajeak, larrialdi postuak, egunaren argia...

Muino baten hegia gerizatu zuen argi-antxak atera zuen gogoetatik Ricardo Sanchez. Ibilgailu bat horizontean. Kontrako norabidean zetorren. Kamioia zen, trailerra. Azkar hurbildu zitzaion. Ahal bezain fite tarteko hesia igaro eta keinu dantza zoro bati ekin zion gidariaren arreta bereganatu nahiz. Ikusi ikusiko zuen, atzetik galgaren argiak nola piztu ziren jabetu zen, une batez, bihotza kolkoan zuela, hala ere, ziztu bizian lotu zitzaion zeraman bideari. Bere burua lasaitzera egin zuen Ricardo Sanchezek, bat pasa bazen gehiago ere etorriko ziren. Eta luze gabe ikusi zituen auto baten argiak hurbiltzen. Zainak eman zion auto hura geratu egingo zela. Besoak zabal-zabal jarri zen errepidearen erdian.

Ozta-ozta saihestu ahal izan zuen Benito Makuak autoaren gainera etorri zitzaion eroa. Azala pinportatu eta izerdi likak blaitu zion soina. Ikusmen garbi bat izan zuen: gorpu ikusten zuen errepide bazterrean, zakur deslai bat heste-mataza makadamean barreiatua. Laborriak hartu zuen istant batez. Tipo bat autopistan gau bel-

tzean bakarrik. Bera izan zitekeen. Hala ere, lasaigarriago gertatu zitzaion ez geratu behar izana, autoarekin ez harrapatzea bera baino. Etxetik gertu zegoen. Agertu bezala ezabatu zen irudi asaldagarri hura, beltzean funditua, Benito Makuaren atzeko ispiluko pantailatik.

Iharra

Tiro bakoitza maiteari egiten zion lore eskaintza zen Iharrarentzat. Hala esaten zidan. Egunero leihotik begira harrapatzen zuela Artxandarako bidean, zain. Agur keinuak eta irribarre gozoa eskaintzen zizkioten elkarri. Hortik gorakoa gogoaren sutegian berotuko zen.

Lotura lanak betetzen zituen, egunero jotzen zuen agintaritza gorenetik frontera.

Deblauki bota ohi zidan:

– Gerra honegatik ez balitz ez nuke haren ezagupiderik izango. Handia da, gero, esker-zorretan nago gerrarekin.

Uste zuen Blanca zain zuen bitartean ezein kaltek ez zezakeela harrapatu, maite bazuen seguru zegoen ez zutela hilko. Berak ez ezik bere ingurukoek ere aitortzen zioten suertetsuaren itzala. Iharraren taldekideak ez bezala, berak ukiturik nozitu gabe gaindituak zituen berealdiko bizpahiru gerra egoera larri.

Harro esaten zigun aberriagatik ezetz, Bilbo defenditzeagatik joana zela aurrera, eta Bilbon Blanca, Blanca defenditzeagatik.

Frontean ahoz aho zebilen Iharraren adurraren kontua. Beti onik ateratzen zela bera, eta, aldiz, halabeharrak gogor kolpatzen zuela bere ingururik gertuena. Bekaitzez eta gaitzondoz begiratzen hasia zitzaion jendea, kaltegabe gertatzean besteren zorigaitzaren ardura berekin balu bezala. Gerrak, ordea, ez zuen aieruok arriskugarri bihurtzeko lain iraun. Santoñakoa etorri zen, eta ondoren espetxea eta batailoiak.

Errepide berritzen jarri gintuzten Aragoi aldean. Blancak egin zuen modua Iharrari gutunak helarazteko. Neurtutako hitzak igortzen zizkion, lagunkoiak bai, baina, edozein grinari haizea ematetik oso urrun zeudenak. Hazkarri horrexen premia zuen Iharraren bihotzak, zainari eskean ari zitzaiona ematen zioten berez konplimenduzkoak baino ez ziren lerro haiek. Seguruenera gizalegeak edo errukiak neskaren kolkora erauzitako hitzak aski izan ziren hartzailearen maitasunaren sua bizitzeko.

Auzo-lotsaz irakurri nituen Iharrak Blancari idatzitako lehen gutun biak. Berehala adierazi nion ez nuela gehiago ezer jakin gura bere ustezko maitearekin zer zerabilen.

Ez zidan ulertu, min eman bide nion. Baina hainbestekoa zen bi gutunen arteko koska: batean kortesia epela edo adore hitz zerrenda leungarria besterik ez zena, ilinti irazekia zen bestean.

Sukarrak hartuta gogoratu zidan itsumustuan:

– Maite naik oraindik, onik izango nauk, ez zaidak okerrik gertatuko zain daukadan bitartean.

Lagun kaskarra gertatu nintzaion, inoiz kontra egin banion ez nuen sekulan gogor egiteko aski indarrik batu.

Kementsu, gatibutzaren neurriaren hainbesteko pozez ikusten genuen Iharra eguneroko jardunetan. Gozoa zen benetan lagunarterako. Gerra galdu genuela zioen, gerra bat galdu genuela, beste bat besterik ez. Denok jota genbiltzan garai haietan umoreko ibiltzen zen, Iharra danbolina zen gure gogo doinugabetuentzat. Ba-

zuen beti ziri bat, txantxa bat, ateraldi barru pizgarri bat.

Zalantza izpi bat aski izan zen, hala ere, aldartea zeharo muda zekion. Gutunak jasotzeari utzi ahala Blancarenganako ustea hoztu zitzaion, eta maitasunaren harresi trinkoak arrailtzeaz batera Iharra bere osoan abaildu zen.

Burua arintzen hasi zitzaion. Begirada lausotu eta ibilera zangartu zitzaizkion. Eroria zegoen, gu guztion derrotaren zama beregain hartu balu bezala. Hatz luzeaz bekokia hiru-lau bider jo eta tiro baten eskean hasi zitzaidan, lehen azertatu ez zizkiotenen ordain merkean eskatu ere.

– Maite ninduen garaiko balak zor zizkidatek. Mesede hori egidak.

Gainbehera horren lekukotza zuzena pairatzea egokitu zitzaidan, eta nekez eraman ahal nuen ardura hori. Arima apartatuta zebilen Iharra. Ez zen gauza lanari ganoraz lotzeko eta zigorra zegokion zigorraren gainean. Ezerk axola ez ziola jarri zen, ezagutzen ez gintuela, hitz egiten ez zuela.

Horrela ikusita, loak muzin egindako orenetan deliberatu nintzen Iharra itotzera. Burkoa

hartu eta, lagunari hainbeste zor niolakoan, azkena emango nion penatze atergabe hari.

Gau lehenean, beldurrak lotutako zangoak libratu ezinda, heldu nintzen Iharraren kamaina burura. Mendiko haizeak karroindutako gaua zen, nire bihotzeko taupadek ulu zegiten hormaizearen lagun.

Burkoa jaso nuen bi besoez Iharraren buru gainean. Aurpegira begiratu nion eta ahozulo beltz hark ozen esan zidan arnasa joana zela handik, Iharra hila zela... Burkoa aho parean jarri eta indar guztiekin sakatu nion, harik eta nire taupadek apur bat sosegatzera egin zuten arte. Haizeak gauza gozoak esan nahi zizkidala bururatu zitzaidan. Derrota bat ez dela derrota guztiak, maitasun bat ez dela maitasun guztiak. Gure zain izoztuen barruan odolak gatzatu gabe dirauela, bizirik, bero, ero.

Burkoa galtzarbean batu eta neure ohantzera egin nuen isilak ferekatuta. Lo harrapatu nindu en egunsentiak.

Agurra

Zain egondako unea heldu zen eta ez nuen jakin zelan erantzun. Abandonoak hari luzea zekarren. Berariaz landutako banaketa izan zen. Hainbeste ziri pozoitu, hainbeste ezentzun, hainbeste ezesan.

Uste ez arren trinko atxiki zitzaidan erukarria, babesgabea nintzeneko sentimendua. Eta ardotan itotzeko ahaleginak ez ninduen Zumarragako erietxera baino harantzago eraman. Ez nuen hiltzeraino edateko edo erotzeraino maitatzeko barrurik izan. Beti izan naiz epela. Hala esan izan didate behintzat.

Egun biko egonaldia. Barrutik garbitu eta osagile-erizain jende zintzoaren laido zipriztinak larruazaletik irentsita etxean nintzen atzera. Bakarrik baina.

Gertatu behar duena badakizu eta etxe hutsaren baitan zelatan jartzen zara. Piztia bat zara, piztia zeken bat zeure hestemintzetako ozpinetan aztarrika, eta bakardade hori duzu bazka. Inor ez dator lehen orena bete denean,

igogailua entzuten duzu, auzoa zelan betetzen den sumatzen duzu, ate hots bat bestearen atzetik, gabon opatzeak nonahi, harrera abegikorrak. Argiak iluntasuna urratzen.

Zeure buruari diozu, *honezkero ez zetorrek*, eta tristura berriaren gozominak bihotz zola kilipatzen. Eta norbaiti esateko premia sentitu orduko badakizu inori kontatzekoak ez dituzula zureak. Orain ez zaizkizu, bat-batean, kristautasunean must egiteko aski adore izan ez eta, elkarrentzuketaren edo autolaguntzaren gisako melengakerien ateak zabalduko. Negar, negar bakarrik egiten da beti.

Malenkoniaz begiratu nion telefonoari, eta telebista itzaliak mehatxu egiten zidala iruditu zitzaidan ondotik pasatzean. Horra non neukan solas merkea eta erosoa handizka. Lotsa apur bat banuen artean ordea, eta edanaren arte nobleari lotu nintzaion buru-belarri.

Mutikotan tristura hondargabea sortzen zidaten, lehen eskola egunetan gelako zerrendetan agertu arren, gero sekula etortzera iristen ez ziren balizko ikaskideek. Batzu-batzuk argazki bidez besterik ez genituen ezagutu. Kimu-berri-

tzen hasterako inausitako adarrak jo izan ditut gero, gizaki arrunton gainetiko indar batek eskukada bortitz batez gure bistatik deblauki kendutako promesa eta itxaropena. Orduan pena astuna sentitzen nuen, egun gutxiren buruan sendatzen zitzaidana, dena den. Aiseago ematzen dira auzoaren zauriak.

Behin, ordea, ez nion eusten asmatu jakinminaren ziztadari eta galdutako mutikoaren xerka ekin nion, ez dakit zer bulkada ezohikok horretaratuta. Uzkurra bainaiz izatez, eta beldurtia, egundo mentura eta ezpalari ziria sartzera batere emana ez.

Tomas Agirrebeña zeritzana ezin izan nuen ezagutu hondarrean. Etxez eta herriz aldatuak ziren ni inguratzerako, aita ezin zelako hemengo girora egin. Bronkiotatik gaizki zebilen antza eta arras kaltegarria gertatzen bide zitzaion gure bustitasun errimea. Argazki hura oldartu zitzaidan akordura.

Itsas handiaren bakardadeak hartu ninduen gauean, urpe zaratatsu beti urrunaren handitasun soraio eta helgaitzak. Ongi nekien han nire beharrean legokeenari huts eginen niokeela

behin eta berriz. Ezer jakiterako berantegi izango zen mundu oso batendako. Baleen abistuak jotzen nituen gau ilunean gure etxeko leiho itxiaren aurrean. Bariantean entzuten nituen autoen hotsa zen bizitasunaren zantzu bakarra. Etxekoi zitzaidan motor zarata. Zerbait bizirik bazelako froga. Ortzemuga gorriaren hegian Frankenstein abegikor baten bihotza entzutea lakoa.

Logabeko biharamuna iristen zenean han izango ninduen, besoak zabalik, bere ukaldi bortitza hartzeko gertu.

Astelehen goizean bulldozerra hartuko nuen eta inork ez bezala urratuko nuen zorua. Xeraz aterako nion lurrari non zen arrakala beratua, zelan mintzo zitzaidan sakonera isilkaritik. Ez zidan lanean inork igarriko ezer, betiko *naparra* izango nintzen, premiazko zerbait jasotzen ari bagina bezalako amorruz etxe karuak egiteko etxe zaharkituak botatzen, aspaldi luzean lo sakonean izandako orubeak harrotzen.

Eta arratsalde hondarrean kabina barruko kristal hautseztatuaren atzetik alaba ikusiko dut. Eder. Ez dut haren beharrik amaren irudiak barruak har diezazkidan bere ertz urragarri guztie-

kin. Kaskoaren aurreko hegala jasota egingo diot agur, itxaroteko keinua lanetik atera arte. Aurki beteko dira bi urte etxetik alde egin zuela. Eroskin kajera lana bilatu eta hilabetegarrenean edo izango zen.

Artzubiko garagardotegian elkartuko gara. Kaleko arropak jantzita hurbildu eta ardoa eskatuko dut eztarriko hautsaren lakartasuna leuntze aldera. Eta kaletik jakin baino lehen neuk esan nahi diodala. Zumarragako erietxekoa azaldu ostean, aipatuko diot amak etxetik alde egin duela. Apal, dramatismorik gabe.

Eta alabaren begi handietan induskatuko dut lehendik bazekien asmatzeko. Bigarren basoerdia hustu aurretik eskua hartuko diot nire atzapar latz artean. Gurean afaltzeko eskatuko diot, bihar gaur ezin badu. Hotz agertu nahiko dut, lasai itxura eman, beldurra diot alabaren negarrari. Ekiten dionean kurloi baten pare hasten da hipaka isil batean. Beldurra diot bakarrean egiten ez den negarrari, aurre egiteko kemenik gabe harrapatzen baitzaitu, ezdeusaren mailara jaisten zaitu istant batean, eta gauzen neurria

aldatzen du, orekak berritzen ditu, modu ustel batean baina.

Gero agur esango diot alabari, baina atzea eman aurretik hurbildu eta bota egingo dit, *Egia al da oraindik jo egiten zenuela?*

Eta luze joko dit gauak. Mahai gainean hilda-ko arrain bat da telefonoa. Altzairutegiko itsaso-aren marruma entzuten da oskorriaren pean.

Txangoa

Gogotik joana zenuen alabak bezperan esan zizuna. Dirua eskatu zizula bai, ibilaldia zutela gaur eskolan, nondik nora ibiltzekoak ziren-eta arrastorik ez, ordea. Hartzeko dirua eta etxerako oroigarritan ez gastatzeko. Nora doazen galdetzearren neskatoa horren goiz iratzartzea ez zaizu iruditu. Ohi legez irratia biztu, kafea berotu eta ahalik bizkorren beharrera egin duzu.

Berandu zabiltzatelako hartu duzue autobidea Galdakaoko irteeraraino. Haizea harro samar ibiltzea, bestela ederra dakar eguna. Autoan motore zaharkituaren marranta eta irratiko kalaka aspergaitza beste hotsik ez.

Zamudioko parke teknologikoan ari zarete pabilioi berriak jasotzen. Subkontrata. Oraintxe ia azkenetara ekarri duzue lana. Hiru bazkide zarete eta beste hiru-lau langile hartzen dituzue zerbait handixea sortzen denean. Gaur uralitazko teilatua eman nahi diozue pabilioietako bati. Datorren astean amaituko duzue egitekoa eta etxetik hurbilago jardun ahal izango duzue atze-

ra, izan ere, maiz, dagoena hartu beste aukerarik ez dago bezeroa ez galdu alde. Eta horrela.

Ez zaitugu gauza txipiei erreparatzera oso emana. Aurrena egizu lan eta gero jan. Hala ere, eta bazkalostean, hain juxtu, birritan itzuli zaizu gogora alabaren txangoarena. Bizkaia inguru horretan behar zutelako errezeloa duzu, baina ezin zuzen asmatu non.

Ostirala denez bidean kera egin duzue basoerdi bana hartzeko. Lanak lan, ostiral iluntzeko haixeak erasan dizu zuri ere; bestetan ez bezalako hiztun egiten zaitu, bestetan ez bezalako arrai eta lagunarteko. Zornotzan autoan zurekin datozen bi lagunei itxarotekoa egin diezu, txinparta batek jo zaitu gozotegi bat sumatu duzunerako. Lagunek irri gaiztoz hartu dizute burutazioa. Apur bat desbideratu, kale bazterrean matxura argiak jarri eta bazoaz bulkadari amore emanda, behingoagatik. Zer arraio, biak dituzu gozozale etxean, estimatuko dizute. Erabaki duzu, sanmarkosa.

Txantxa artean egin duzue Elgoibar arterainokoa, ea gozo hartzen ez zaituzten etxean, gozatu beharrean zaren eta gisakoak. Bekaitzez

agurtu zaituztela bi lagunek iruditu zaizu zeuri. Handia da irri baten aterpea hori falta duzunean, datozen orduetan, datozen egunetan gertu izango duzula norbait argitzear den goizaren segurantzia bezala, sabai sendo bat gure loaren gainean, oin bero batzuk, izter arte bat eskuari emana gauaren beltza urratzeko.

Orain bakarrik zatoz etxera bidean, oraindik burura ekarri ezinik non ibiliak dituzun alaba-eta. Zeure kautan egin duzu politagoa dagoela ile motzarekin, amaren antz handiagoa hartzen duelako agian. Haize harroa altxatu du berriz, goiak txistu batean dira.

Gauza ederra da ostiral iluntzea, zoriontasun betea zer den ez duzu jakingo, baina ostiral iluntzeak maiz sortzen duen lasaitasun sentimendu atseginari ez diozu tamaina txarra irizten.

Ibai ondotik, aldapa beheran herrira sartzen ari zara, haizeak egunkari orriak astintzen ditu kaio nekatuak balira bezala. Irratia amatatu duzu eta abiadura moteltzera egin duzunean jabetu zara ezin duzula autoa noratu. Bolanteari batera eta bestera eragin; alferrik. Bihurgune itsuaren bukaeran jausi zara ibaira.

Doi-doi ikusi duzu aurrerago, ibaiaren beste aldean, autobusa geratuta eta neska-mutiko jaitsi berrien zalaparta alaia. Saiatu zaren arren, ezin izan duzu gogoratu, azkenean ere, alaba- eta zein ingurutan ibili diren; onik iritsi direna badakizu bederen. Pena hartu duzu tartarengatik.

Arratoiak

Negua ari du aurten. Hotza. Bustia. Hezurrak zurminduta gaude, sabela beti erdi bat gose eta beste erdia huts. Soldaduak dabiltza kalerik kale, eriak eta hilak garraiatzen ez bada, euren etsia noren lepotik berdinduko. Inorentzat onik ez denean, ez dago izaki doilor eta errukarria besterik, miseriak bihotza gogortzeaz bat, ordea, bilakatzen gaitu ulerberago. Odola zainean bezala antzigartzen zaigu elurra soinean. Hotzak, aiduru gaude baina, ez gaitu hiltzen ahal guk nahi bezain fite. Bizia biziari aldezten zaiola. Aspaldi ez bezala atzo ikasi dugu azkenean asea zer den.

Gu gauden kaserna lekaime komentu izandakoa da gerra hasi aurretik. Urkamendi zaharretik gertu dago. Hor aldean eskolak egin zituzten gero. Aldirietako kanoi eta mortero hotsek iratzarriko gaituzte batzuetan; bestetan, berriz, baratzeko hormaren kontra fusilatuak nola abailtzen diren begira egoten gara geure aterpetik, euriari begira bezala. Ikusteko ederrenak isilik jausten direnak dira, ez negar bat, ez erantzuki-

rik, harro nahiz apal, keizuak itsutuak zein penak sorgortuak bala tantolak lotu eta etzan.

Baratzeko hormaz beste aldean erietxe militarra dago. Bake garaian bi txalet eta institutu zaharra ziren eraikin horietan. Gogorra behar du gaixo denarentzat aldian-aldian entzuten dituen iskiluen festatik kanpo geratzeak. Ez denak, baina fusilatu batzuk ospitalera eraman ohi dituzte. Zail da guretzat hara sartzea, goseak zentzumenak zorroztu dizkie garai batean gurekikoan epel agertu ohi ziren kateko zakurrei ere. Hormaz honantz sortzen den apurrarekin errenditu behar izaten dugu beraz.

Hori guztia horrela zen, ordea, duela lau hilabetera arte, orduan agertu baitzen estreina gizakien artean egundo ezagutu gabe geundena, *laguna*.

Soldadua zen hura ere, kasernako ziegetan arduraren bat bazuena. Egun argiz inoiz ikusia genuen baratze ondoko patioan gatibuak zaintzen edo aginduak ematen. Zorrotz erabiltzen zituen mendean zituenak, haatik lausengaria zen goiko jendearekin. Iluntzero hasi zitzaigun jatena botatzen oiloak bagina bezala.

Juzgu txarra egin genion aurrena. Hura joan eta puskatera ausartzen ziren baratzeko zokoan barrena gure artean berezko adoreak edo goseak erantsitakoak gehien ziztatzen zituenak. Hark emandakotik inor gaixotzen ez ginela ikusita egunean-egunean beldur gutxiago erakusten genuen. Ez gintuen ihizitzat nahi morroitzarako baizik.

Laster hurbildu gintzaizkion eskutik jatera, baina ez zen horretan betetzekoa bere asmoa. Bezatu egin nahi gintuen, bere nahiera makurrarazi. Gu, berriz, beti izan gara tratura emanak onurarik ekar diezagukeen bitartean, eta zainak esanda genekien tratu hura on zitekeela guretzat.

Asko ere ez ginen baratze aldeko zuloetan bizi ginenak. Elkarren kontra bilduz hotza kendu beharrez, beti irizten genion urri geure multzoari. Hotzak hotz, bazirudien neguaren gorriena guretzat joana zela *laguna* galtzen ez genuen artean.

Jolas egiten zuen gurekin ilargiaren argitan. Segikadak egiten zizkigun, korrika ibiltzen ginen elkarren iheska. Galtza barrenak hozkatzen

uzten zigun, kolkoan erabiltzen gintuen, berak jarritako izenez hots egiten zigun.

Halako batez, jolasen hariari jarraituz gutako batzuk zaku batean sartu gintuen eta ziega batean jaregin. Ohantze txokoan kuzkurtuta hartu gintuen han zeukaten presoak. Nabarmena zen nazka sortzen geniola. Nazka hobe beldurra baino, estu lotzen baititu eskuak nazkak beldurraren aldean. Ziega zuloari ikus-pasara eman genion lekuak ezagutze aldera: ahamen gozotik gutxi hala ere, mahai ziztrin baten gainean bi liburu, bizpahiru gutun eta orri batzuk, ez gehiago, ohe gainean presoaren betaurrekoak. Behialako lekaimeen gela hotzei gatibutzaren larderiak zorroztuak zizkien ertzak. Mahai inguruak arakatzen ari ginela dei egin zigun, ez gintuen han luzerako nahi.

Ohiko bilakatu zen gaueko jolasen osteko bisita hura. Beti ordu berdinean, beti ziega bera, beti izu berari josia presoa, mututasun ito berdinari. Ziegazaina gero eta beranduago biltzen zitzaigun bila. Berariaz gure lagunak ohetik urrun jarri ohi zizkion oinetakoak –aztaletarainoko bota beltzak– astiro-astiro jan genizkion presoari. Ez

zen, ordea, horren soraio agertu mahai gaineko gutun eta paper usnan ikusi gintuenean. Heriosuhar ekin zion gure kontra, gogor esetsi gintzaizkion. Taldeko batzuk bertan hil eta beste zenbait larri samar atera baginen ere, laster jabetu zen gerra hura ere aurrez galdua zuela. Hura nahi beste ahaleginduagatik, gu zuzpertuta, ugalduta agertuko baikintzaizkion hurrengo gaulehenean, eta hurrengoan, eta hurrengoan...

Horrela usteko zuen, aldez edo moldez bera ere jateko asmotan ginela, aurki hasi zitzaigun- eta gauero zerga jabalgarri moduan guk ahora eramateko zerbait uzten. Agian gure adiskidetasuna erdiesteko lehian nahiko zuen sartu beste aukerarik ezean. Hala ere, eta itxura batera, herbalak zituen armak ziegazainaren ondoan.

Egun batean gutun bat utziko zigun eta liburu baten orri sorta hurrengoan. Artean ez genekiena zen hitzez ere elika gintezkeenik. Gutun hasiera adore eragileek adoretu, eta despedida eztiek gozatu, abesti aberkoiek bihotza berotzearekin batera mineriz jo, eta gatibutza testigantza gordinek elkartasun gosea ziguten ernarazi. Gure entramak azkenik ez zuen. Barren-ba-

rrenetik sentiberatasuna eta zuzentasun grina loratzen zitzaizkigun heinean kezkatzen gintuen gure senarekiko uzkurtzeak, odolaren jaierari balizko muzin egiteak.

Baina ezin olde hura geldiarazi. Laketu egin zitzaigun presoa. Egingo nuke gustura hartzen gintuela azkenerako, bai baitzekien gurekin nondik jokatu, eta elkarrekin ziegazainak inoiz lortuko ez zituen lotura moduak estutu genituela. Gura zuenetik ereiten zuen eta gura zuenetik batzen. Irakurtzen zela, egonean zela, ziega barruan lasai ibiltzen ikasi zuen gu tartean ginela. Behar genuen bazka ematen zigun, eta ahalik eta isilen, ahalbait otzanen karraskatzen genuen txokoan. Inoiz edo behin lokartuta ere aurkitu izan genuen. Orduan, oheburu parean jartzen ginen geldi-geldirik begira, eta loa jagoten genion. Gutunak eta bi liburuen orriak agortu zirenean bere eskuz idatzitakotik ematen zigun jateko. Egunez idazten zuen, nonbait, guk gauez jaten genuena. Gutunak, egunerokoaren atalak, gogoetak, aforismoak, poemak, kronikak, gure bizitzari buruzko istorio harrigarriak. Eskaintza zeharo anitza izan arren, testu guztietan isurtzen

zigun errebeldia tantaren bat, geure izate betizua inarroste adinako aldarri lauso antzekotik. Eta, arian-arian, itsatsi egin zuen euri gozo hark gure bihotzetan.

Lagunak igarri bide zuen gure artekoa hozten ari zela ziegako atzera aurreak hasiaz geroztik, baratzeko jolasgurak arras apalduak zitzaizkigula, jangartsu gintzaizkiola haren eskuari, antsiaz egoten ginela ziegaratuko gintuen zakurako ordua noiz helduko. Ez zitzaion sortu, baina, gure mutiritasuna ziega zuloko apopiloarekin lotzea. Presoa suntsitua zuelakoa egiten zuen, gure leialtasuna itun zartatu ezina zelakoan bizi zen.

Herenegun ikusi genuen fusilatzen. Uhin txipi bat ur bazterrean nola egin zuen behera, dantzari zauritu bat. Ziegara egunez orduan ausartu ginen. Ez zigun inork erreparatu, pelotoiaren fusilak presoaren odola karroina urtzen ari zen tokira noratuak zeuden.

Ziegako gure txokoan presaka idatzitako testu sorta zegoen –azken agindu bat?–. Hitz handi eta ederren artean sotilagoak ere baziren, oihan hutsak eta grebak, meatzeak eta haurren loa, belar odoleztatua eta maite-eskeak. Papera

karraskatzeaz batera hartu gintuen su min batek, bazterrik hartu gabe errendituko ez den sua. Ulertu genion. Gaur okelez ok egiteak hiltzea ekarriko digu ondoren, baina dagoeneko nork kenduko digu libertate betekada. Ai, libertatea!

Ohi legez hurbildu gatzaizkio bart arratsean. Eskua luzatu eta berehalako auskada izan dugu seinalea. Bazka ematen ari zitzaigunaren marruak isilarazteko eztarrira, eztarrira jo beharra zegoen azkar. Batzuk begiei kolpe, besteek izter mamiei eraso, kasko soilduari ekin eta ekin, ezpain mintzak urratu batzuk, iztapea mihiaz beratu eta jan bestetzuk, aurki ez da gau izarratuaren pean marruskatze konpasatuaren zunburrun sor bat baino entzun ahal. Ganaliaz jan dugu hestemintz, guruin eta garunetan palasta eraginez. Goizaldeko izotz beltzaren meneko ez dugu utzi ziegazainaren mutxikin pilda besterik.

Elurra hasten du atzera, soinean karroinduko zaigun elurra, eta gero gosea etorriko da, eta ondoren gosea eta hotza. Gerrak ez du atertu bien bitartean, eta eguna argitzeak soldaduen harat-

honata biziagotu du kaserna inguruan, hilak, eriak...

Soldadu etorri berri batek betaurreko parea kausitu du baratzeko horma aurrean. Eskuan hartu, balaz pikortutako hormari begiratu bulta batez eta atzeko patrikan gorde ditu. Kasernako egoitza nagusira jo du arin.

Nire aitaren etxea...

– Barkamena eskatu behar al dut?

– Bai; ez dituk, behintzat, pozik agertzeko garaiak.

– Ezkontzara joan egingo naiz, ordea.

Loiola Irratiko errosarioak erantzun zidan, hildakoen zerrenda amaigabeak. Muturra belztu zidan aitak, eta horrek esan nahi zuen ez zegoela etsitzeko.

Biktima sentitzen nintzen neu ere. Eromen kolektibo erraldoi baten bazterreko biktima nolabait. Jimeneztarrak ziren gure etxepean bakarrak... Etsaiak esatea asko litzateke, hala ere, horrela adieraztea eskatzen zuen egun haietako giro bero eta erreak. Etsai berriak ziren, baztertu beharrekoak, hitza ukatu eta ahal zela ingurutik betiko uxatzeko hobe zirenak.

Txikitako laguna nuen Juan, eta handitakoa ere bai. Bizitzako pasadizo garrantzitsuenak gogora ekarri eta beti ondoan ageri zitzaidan. Lehenbiziko parrandetan eta azkenekoan, lehenbiziko borroketan eta azkenekoan, lehenbiziko

neskatan egiteko saioan eta azkenekoan. Niko, Anjel Mari, Gotzon... puzzleko pieza aldagarriak nituen, gaur bai eta bihar ez, azaltzen zirenak nire bizitzako panavision pantailan, baina Juanen izena beti-beti urrezko hizkiz ageri zen niri zegozkidan gertaeren krediruetan.

Aitak ez zituen inoiz begiko izan Jimenezta-rrak. Etorkinak zirelako baino gorriak zirelako. Eta hori bekatu larria zen artean Azpeitia baterako.

– Ez zegok ba gaizki. Muturbeltzak, eta gaine-ra gu baino abertzaleago...

Hori zen barkatu ezin ziena. Oso bakan, eta aho txikiarekin, aitortzen zuena gure aitak bestalde.

Uztailak 10-11 haiek ez ziren gozoak izan gurean ere. ETAk Ermuko PPko zinegotzia bahitu eta berrogeita zortzi orduko epea jarri zion haren biziari ordurako euskal presoak Euskal Herriratzen ez baziren. Ustekabeko handi batek hartu gintuen denok. Estatuak polizia, inteligentzia eta gizartea bera jarri zituen lanean bahiketaren balizko babesleen aurka. Poliziak, juezek, gudarosteak, legeak betetzeko badaude, hor dago he-

rria, demokraziaren zutoina, bere nahia kalera ekartzen duena kinka erabakigarrietan. Alferrik jo ditu sistema liberalak berrehun urte aginteen banaketa eratzen berriro ere *sans culotte*ak karrikaratzeko, baina oraingoan diren errege guztien alde, diren errepublika eta goitik ezarritako agintaritza guztien alde.

Hizketa molde hori ibili genuen Juanek eta biok ostiral arratsean.

– Ez zaik berehalakoan ahaztuko ezkontzako eguna.

– Ez duk komeni, Martin. Dena dela, lapiko honek ere hoztu beharko dik inork bertatik jatekotan.

– Eta etxeko balkoian Presoak Euskal Herrira dioen ikurrina jartzeak horretan lagunduko duelakoan al hago?

Ez ziren telefonotik hitz egiteko gauzak eta Zuhatz tabernan jarraitu genion solasari.

– Badakik gure aita zer den. Baina Etxabetarrek balkoian begizta handia jarri ez balute guk ez genikek ikurrinik aterako.

Iritsi zen eguna eta Kiruri-koan dantzan ari ginela heldu zitzaigun denok espero genuen be-

rria. Gazte bat aurkitu zutela Lasarte aldean, buruan bi tiro zituela. Aurrena hilda zegoela esan zen eta handik gutxira, oso larri egon arren bizi zela artean.

Balkoietan jarrita zeuden begizta urdinak beltzekin aldatu zituzten garaitsuan etxeratu nintzen. Goizean jakin zen hila zela Ermuko zinegotzia, eta Juanen etxeko ikurrinak lehen adinean zirauen.

Sentimenduek poltergeist bat nozitu arren, bizitza gailendu zen arratsalde hartan ere. Jendeak hondartzara eta mendira jo zuen errepideetako hainbat kontrol gaindituz. Festetan ziren herri gehienek festari eutsi zioten... Egunen segidak ez zuen kera egin, aurrera segi zuen galtzen zituen txatalei destainaz agur eginez.

Ermuko zinegotzia hil edo biziko borrokan murgilduta zebilen bitartean happy hour itzel baten traza hartu zuten herrietako kaleek; larunbata zen, udabeteko larunbata. Burutapen hori izan nuen goizaldera Goenako bazter batera Aioraren Twingoan joan ginenean; elkar eranzteko jolasak beti izan du niretzat proklama askatzaile baten indarra eta lilura. Egunsentia Garmendi-

gaineko gandua zuritzen ari zela jaitsi ginen herrira.

Juan eta Amaia eztei-txangoan izango zirela zegoeneko gogoratu nion aitari.

– Lotsa gutxi dik hemen jendeak, lotsa gutxi –esan zidan ekarri nion egunkariaren lehen orrialdeari erreparatu ahala.

Sukaldean ari zen gosaltzen. Ama hilez gero hala egiten zuen igandeetan ere. Batzuetan laguntzen nion, baina orduan hobea nengoen oherako.

– Jimeneztarrek ez ziaten kenduko balkoitik, ezta?

Loak eta gertaeren bortitzak indartuta zeukaten aita. Sesiorako zegoen eta lehenbiziko puntada botea zidan.

– Ez. Ezta Etxabetarrek ere, ezta Uriatarrek ere –erantzun nion gaiztoz.

– Hire laguna-eta firin-faran ibiliko dituk hor zehar. Nora? Irlandara esan al huen?... Eta hemen ikurrina defenditzen zein utziko, eta aita-ama zaharrak. Ederra kontua, a ze seme-alabak, a ze abertzaleak.

Ez nion atzeman nora jo nahi zuen.

– Bihar eguerdirako bilkurak zeudek –esan zidan egunkaritik begirada jaso gabe–. Eta gure etxepea guztien ahotan ibiliko duk. Zerriak!

Betiko jardunaren traza emanda neure gelara alde egin nuen. Nekeak une hartan behar nuen hoztasuna eman zidan eta bazkaltzeko nire zain ez egoteko esanda ohera jo nuen. Loak hartu nindunean herri honetako tragedia desberdinen arteko ezinezko ranking bat ezartzen ari nintzen neurekiko.

Gure lantokian ez zen ordubeteko lan uzterik egin astelehen eguerdian. Beste gehien-gehienetan ere ez, hainbat denda eta bulego izan ziren itxi zituztenak antza. Baina hori, gero, arratsaldean jakingo nuen.

Lanetik bueltan hiru lagunek pare bat basoerdi hartzeko ohitura daukagu egunero. Astelehen hartan ere Orkatz tabernan sartu ginen aurrena. Gure pausoen berri jakitea zaila ere ez da-eta, hor datorkit ingurura Antonio Jimenez, Juanen aita, herio batean. Autoa atarian zuela eta laguntzeko, gure aita Zumarragako erietxean zela.

Plazatik pasatzean galdetu nion zenbaterainokoa zen aitarena, eta ikusi nuen Jimeneztarren etxean goizeko ikurrina falta zela.

– Ez, ez dik ezer baina badaezpada han eduki nahi ditek bihar arte.

– Eta nola joan da ba gauza!

– Begira –esan dit Loiolako etorbidean Ertzaintzako patruila bat aurreratzen genuen bitartean–, badakik kontzentrazioa deituta zegoela plazan eguerdirako. Hasi duk jende mordoska pilatzen, eta pilatu ahala batzuk berotzen *asesinos*ka eta *cobardes*ka gure etxera begira. Ausartenak gure karrerara hurbiltzen ikusi ditudanean ertzainei deitu eta abiatu nauk eskaileretan behera.

Bide ertzeko akaziek, panpanoek muturreko bana ematen zidaten Zumarragara bidean.

– Atariko ateari helduta han aurkitu diat zuen aita Jose, eztabaida batean, sartu nahi zutenekin. Haien artean bahituen bere lagunak, badakik... Traidoreka eta hasi zaizkiok batzuk, hiltzaileka eta bultzaka ere bai beste bakarren bat, eta egin zaiok nobedadea, eta orduan kontuak.

– Bihotza! –atera zait brastakoan.

– Itxura batera bai, baina azkenean tentsioaren igoera besterik ez duk izan.

Ni lasaiago sumatzen ninduen heinean lasaiago ikusten nuen Antonio. Errepide bihurriari arreta jarrita mintzo zen, ohi baino irriberago eguerdikoak gomutara ekarriz.

– Zerraldo erori denean jendeari kendu zaiok gurean sartzeko gogoa. Ertzainak etorri dituk eta Zumarragara ekarri diagu.

Bere osasun egoerak kezkatzen ninduen, baina zail, ia-ia sinestezina egiten zitzaidan gure aitaren jarrera. Ez nekiena zen bere osasunarekin, zahardadearen ajeekin zerikusirik izan ote zezakeen eguerdian manifestariei oldartzearenak.

Ohe ertzera inguratu nintzaionean irribarrea eskaini zidan.

– Zer gabiltza aita?

– Sartu zieat ederra! –hasi eta ahapean jarraitu zuen–. Gainera zetozela ikusi dudanean hasi nauk teatroa egiten, itotzen nintzeneko plantaketa eskuarekin paparrari helduta...

Puztuta zegoen burutu zuen balentria ahogozatuz.

– Zergatik, baina?

Antonio Jimenez zegoen aldera begiratu, niri oheburuaino hurbiltzeko agindu eta keinu konplizea egin zidan.

– Seme, ni ere gudaria nauk; zer uste dute hezurbeltz zikin hauek.

Ezustekorik ez bazen hurrengo eguerdian emango zioten alta. Antonio Jimenezekin herrira nentorrela jotako aharia nola, halaxe sentitzen nintzen. Ikusi egiten nuen Juani kontatutakoan haren barre algara lasaigarriek nola tindatuko zidaten barrua saminez.

Heldu ginenean Azpeitiak astebete lehenagoko, hilabete lehenagoko edo urtebete lehenagoko itxura lasaia zuen atzera berriz. Astelehen iluntze bat.

Antonio Jimenezek ere igarri zidan, nonbait, gogoeta ilunekin nenbilela, eta animatzearren harro egoteko moduko aita nuela esan zidan despedidakoan. Poz hartu nuen beragatik.

Amari

– Amak eraman du –murduskatu zuen izeba Mirenek Andoniren ondoan.

Egun berdinean, abuztuaren 3an, hil zitzaion Andoniri ama, zazpi urte lehenago. Afaldu ostean Josuren gorpuari begira zeuden biak.

Aitarik ez zitzaien behin ere aitortu, ez anaia bati eta ez besteari. Hortik gaitzizenarena. *Sasi*-tarrak ziren. Eta ama, genealogiaren zertzeladak argitzeke joan zitzaien.

Josuren hogeita bi urte ederrak Eskuztako bihurgunearen parean eten ziren. Kamioak jan egin zuen moto eta guzti.

Urteko egunik tristeenetakoa izaten da abuztuaren hiru hori, San Inazioak amaitu ondoko biharamun gaitza, biharamunen amama.

Hondartzatik zetorren lagun batek utzitako motoarekin. Kolpe garbi-garbia izan zuen, gorputza San Pedroren santutxoaren atzeko aldetik jaso zuten, burdinazko barandaren gainean jausita zegoen, zerutik botata bezala.

Handik aurrera, izeba Mirenek bere lore sorta xumeaz apainduko zuen kamio bazter hura astelehenero. Lore eskaintzen museo ibiltariak dira Euskal Herriko errepideak.

– Lo ere egin beharko dugu, izeba.

– Banoa.

Zerraldoburuan otoitz egin zuen eta zuzen tinkatu zion plastikozko gurutzea Josuri hatz artean. Izebari malko bat Josuren masailean labaindu zitzaion musu emateko makurtu zenean.

Ahizpa biek atera zuten etxea aurrera. Josurik gabe, amarik gabe, Andoni bakarrik ari zen geratzen bizitzaren karelean. Izeba zitzaion orain lotura bakarra iraganarekin, izeba eta anaiaren gorpua, izeba, anaiaren gorpua eta memoria neurrigabea.

Leihotik Odria inguruko soroetara joan zitzaizkion begiak Andoniri. Ilunean lo behar zuen belarrak han goian. Bertan egon nahiko luke, ahuspez etzanda, gainera zetorkion bakardadearen zamari eusten.

Gogora inguratu zitzaizkion irudiak, sentimenduak eta aieruak trumilka. Gauak maitale baten xeraz inguratu zuen Andoniren beila. Oroi-

tzapenak ikusmen bilakatzen zitzaizkion bata bestearen atzetik eta ikusmenak oldozmenerako bide zeihar edo bihurkariak.

Oinarrizko heziketa amaituta lanean hasi zen, peontzan, etxean laguntze aldera, eta anaia txikiak sikiera ikasketak izan zitzan. Ama-izebak, etxe garbiketa lanetatik itzultzen zirenean laurek egin ohi zituzten askari gozoak. Edota bi anaiak Kaminburuko aroztegira egur-eskean joaten zirenekoa, eta Ernesto zapateroa zenak utzitako organ, Errebalean goitik behera abiada hartzen zuenean, egur haiek garraiatzeko larritasunak. Amari etsipena eman ziotenean elkarren zotin itoak adituz loak hartzen zituela. Eta ekaineko lanuztearen kausaz bien artean sortutako azken aurreko haserrea...

Irudiak baino, hala ere, sentimenduak ziren Andoniren barrua inarrosten ari zirenak. Biharamunean egin beharrekoetara lotu nahi zuen gogoa ahalbait estuen. Epaitegiko zertzeladak, elizarekikoak... Egongelako horman ispilu handi bat zegoen.

– Hau duk hildako baten anaiaren aurpegia –ekin zion Andonik ispilukoari erreparatuz komunerako jaiki zenean.

Harritu egin zen komunetik kaleko atea jotzen zutela entzun zuenean. Goizeko lauretara zihoan.

– Ezin du atea izan –egin zuen berekiko.

Irudimenaren eskuari egotzi zion txirrina jo izana. Kaleko atea ireki zuen hala ere. Eskaileretako zulotik hileta-etxeko mahaia ikusi zuen: ilunpe zizelatuzko zelai bat. Ez zegoen inor.

Irudimenaren eskuak, errime, temoso, lau ertzain handi ekarri zizkion atalaurrera Josu Gesalzaz galde eginez. Hilkutxa hartu eta atxilotuta zeramaten. Epailearen agindua zekartela. Izeba, garrasi batean,*«Hildako hori gurea da! Hildako hori gurea da!»*, bere amorrua polizien papar beltzaren kontra lehertzen irudikatu zuen. Eta Josuren gorputza eskaileretan behera labaintzen ertzainen bizkar gainean. Eta bere ezintasun sorgorra. Kale hutsak. Jenderik eza. Gertaerak banan-banan kainu-zulotik ihesi balihoazkio bezala. Gogoan zabaldu zuen pankartan *«Josu askatu!»* idatzi zuen, eta penaren lurrunak ezaba-

tu zizkion hitzak letraz letra. Labur zuen eskua, ordea, Andoniren irudimenak ordurako, adorea bezain labur. Gauminak sortu zituen gertakari haiek gauminak jan zizkion, Andoni bakardadearen arbel garbiarekin utziz berriro.

Goiza heldu zain dagoenari astuna zaio gauaren maitaletza, ematen dio argitasuna ez dela gehiago iritsiko, dena aurrez jakinarazi gabeko eklipse luze baten peko abaildu dela, bat-batean muturrera joanak direla espazio hau gobernatzen zuten koordenadak eta iparburuko gaua ahitu zain egon besterik ez daitekeela egin. Irudimenaren esku bihurriarentzat arbel zati bat besterik ez, eldarnio jostakina.

Lasaitasuna zeukan Josuren aurpegiak, atseginaren eta hondartzan bildutako itsas airearen lurrina kendu gabe oraindik. Plastikozko gurutzea albora okertua zuen eta hatz artean tinkatu zion berriz. Goiko soroetan, mendian euria egin zezan nahi zuen. Euriz egindako ehuna josi nahiko lioke Josuri. Anaia arteko despedida modu bat. Aberriño pribatu batentzat bandera isila.

Eguna ilun zetorren. Jubilatu bi kanpaiaren dandan hotsei segika goizeko mezatara zihoa-

zen frantziskanetara. Ibai bazterrean ahatekume batek txiri egin zion ozta-ozta katu nabarraren atzaparrari.

Izeba aurki jaikiko zen, eta bazuen aurretik zertu nahi zuen lan bat, bulkada zoro bat. Hartu zuen ohar koadernoa eta hosto bat erauzi zion. Mandatu triste bat eman nahi zion anaiari.

Papera bi tolesetan batu eta kolkotik sartu zion Josuri. Laster, ama-semeak elkarren gainean paratuko zituzten Abitaingo hilerrian. Hildakoak bata bestearen gainean, pilatan, hustera goazen etxe bateko liburuak legez.

Izebaren oinotsak ekarri zuen Andoni bere baitara. Hilkutxara hurbildu zen, zuzen jarri zuen Josuren esku artean eroria zegoen plastikozko gurutzea.

– Egunon izeba, gosalduko al dugu? –galdetu zuen Andonik.

Euria hasi zuen belardi ihartuetan.

Mugak

– Zu Frantzian lanean hasita hobeto izango ginela eta begira orain, kaka jatea bakarrik falta zaigu.

Plateretik bururik altxa gabe jarraitzen zion zopa jateari Juan Josek. Bokaleko ADA lantegiko bi hilabete pasako grebak Mailo eta bien arteko harreman behiala gozoei ere erasan zien. Hala ere egunero saiatzen zen, egunero atzerriko bidea hartu, inoiz euskaraz bazen ere, beti arrotz mintzo zitzaion jendearekin elkartu, eta berririk ez zela jakin ostean etxeko sukalde izoztura itzuli beharra, iluntzeroko erantzukiak aditzera.

– Nagusiari emango nizkioke nik gure etxeko afariak.

Sekula diru faltarik izan ez duenaren tenplearekin esaten zuen Juan Josek soldatarik gabe aise biziko zela beste hamar urte, baina ezin zuela Mailoren haserrerik eraman hamar minututik gora.

Baziren Acierie de l'Atlantique altzairutegiko grebalariek sartzen uzten zieten egunak, baina

ez beti. Azken batean espainolak ziren, nagusiak bezala. Eta horrexek jaten zizkion barruak Juan Joseri.

– Hango langileentzat eskirol putakume batzuk besterik ez zarete-eta.

– Hi, adarrik ez! Gure sindikatuak han ez dik ezagupenik. Nahita ere ezingo genikek ezer egin.

– Hori duk ba! Sindikatuen zain hagoen bitartean ez hago horren gaizki.

Anttoni barkatzen zizkion horrelakoak, lagunari edozer; baina nekagarria da egunero piketea parean noiz gertatuko ibili beharra. Hoa Azpeititik Baionaraino eta onenean makinen aurrean orduak egin eta atzera etxera. Geldirik dago produkzioa eta mantenukoak ere, gu bezala, fitxatu eta hortzaz gora begira egoten dira.

Turutak jotzen duenean tailer atariko jendeak zorrotz begiratzen diete. Zakur espainolak esanen dute, baina horrekin bizi behar.

«Zer kristo!» pentsatuta ibilbidea aldatu du gaurkoan Juan Josek. Zuzen jarraitu beharrean Ziburu parean eskuinetara hartu du, barru aldera, eta Azkainetik zehar Sarako plaza jo du goiz

erdian. Frontoi ondoan autoa utzi eta *Herriko Etxeko Edantegian* espainolez eskatu behar izan du pastiza, ulertuko bazioten.

Bigarren aperitifaren karietarat beroa sumatu du samatik gora, burmuinak lurrun gozo batek hartzen zizkiola. «Tristea da gero; hauxe da niretzat askatasunaren antzekoena» egin du bere kautan, ezdakitzenbatgarrena eskatuz zerbitzari pinpirina muxindu zaionean. Mailori telefonoz deitzeko grina sartu zaio bat-batean, baina eutsi egin dio gogoari, badaki-eta gaizki hartuko diona, telefonoaren beste aldetik zurrutaren kiratsa antzemango dio, horretan erbi-zakurrak behar lukete emakumezkoek.

Taberna pareko hotelean turistentzat paratutako mahaian opil batzuk erosi eta autora itzuli da. «Saran beti astia» irakurtzeak ezpainak okertu dizkio Juan Joseri, eta esaera hori kanpandorrean, erlojupean idatzitako ahapaldi beldurgarriarekin lotzen saiatu bada ere, ezin izan du. Zangoak pisu ditu eta haize epelaren konpasean baldar dantzatuz egin du autorainoko bidea.

Jarlekuari atzera eragin dio erosoago etzateko. Bizpahiru opil marruskatu ditu eta negar

gozo eta oparo batek eztitu dio ikusmena loak hartu duen arte. Panpano hostoak oparo jausten eta herrestatzen ziren Sarako plazan. Juan Joseren amets larriak kulunkatzen zituen udazkeneko haizeak esan gabeko mehatxu batean.

Aitaren aldeko amona zenarekin egin zuen amets, magalean hartzen zuela eta kontu txikiak egiten zizkiola belarrira. Halako batean ate-hots bat aditu eta amonaren aurpegiera aldatu egin zen. Juan Joseren atzeko aldetik zetorren pauso zarata eta, berak amonari begiak zuzentzen bazizkion ere, amonak zetorrenarentzat baino begirik ez zuen. Amonak jaikitzera egin zuen eta Juan Jose euskarririk gabe mantaletik lurrera erori zen, airean, amildegi sakonean behera zihoala alferrik ahalegindu zen nor zetorren ikusten. Hatz-koskoekin alboko leihatila jotzen zuen *hedexuriak* iratzarri zuen deblauki.

Jendarme bikoteari azalpen handirik ezin izan zien eman, baina autoa berea zuela eta Bokaleko ADA altzairutegiko langile zela erakusten zuten paperak erakutsi, eta bakean utzi zuten greban zegoela adierazi zienean.

Ahoa espartzuz igurtzita bezala zuen eta urdaileko zuloa huts. Erabakia zuen, mugaz alde batera edo bestera grebalaria zen, eta horri eutsi behar zion azkenera arte, nahiz eta bere sindikatuak horri buruz ezer esan ez. Aurrerantzean lantegi aurrean geratuko zen sartzeko keinurik ere egin gabe, eta asanbleatan zer zerabilten bertara joanda jakingo zuen. Eta Mailok ulertu beharko zion; beretzat kalte bestela.

Aurki ilunduko zuen eta etxerako bideari lotu zitzaion. Sarako kanpandorrekoa etorri zitzaion burura deblauki eta lehengo egonezinaren lekuan kemena erantsi zion oraingoan. *Oren guztiek dute/ Gizona kolpatzen/ Azkenekoak du/ Hobirat egortzen*. Etxeratzeko garaia zen eta Xantako paretik aurrera auto ilara luzeak egin ziren Donibane Lohizuneko sarreran. Ortzia gorri zegoen, gaugiro egingo zuen, baina jendea bizi-bizi zihoan etxera, astegun neketsu bati azkena ematera. Haurrak, gozotasun amiñi bat borroka latzaren buruan, lagunak, fereka deslai batzuk: atsedena.

Autoestrata utzita kostako bidetik ohiko orduan helduko zen Azpeitira. Gorputzaldi txarra

zekarren, ajea arintzeko ere balioko zion, hala ere, behingoan, bederen, bere kabuz zerbait garrantzitsua erabaki izanak. Elkartasuna, lankideen onespena, gogoan hizki handiz ageri zitzaizkion hitzak ziren Sokoatik aurrera, kostako argi bakanen artean. Itsaso zabala zuen begipean; kantoi batean Hendaia.

Muga pasa eta autopistan sartu zen. Aritzetako restopean kopa bat hartu zuen: busti beharra zegoen. Adorea hartu beharra zegoen. Bi kopa edanagatik afaltzeko orduan Mailorekin izango zen, sukaldeko mahaiaren aurrean eserita. Plazan utzi zuen autoa, aldamenekoa Anttonena zela jabetu zen. Azkena Eperrarenean jotzea deliberatu zuen, zer gerta ere. Han ez zegoen Anttonik eta, gehiago atzeratu gabe, etxera jo zuen, Mailori azken berriak ematera. Karreran sartzera zihoala Anttonek agurtu zuen auto barrutik.

Mahaiaren aurrean zegoen. Eta aspaldiko partez abegi ona egin zion.

– Zer, ospatzen ibili al gara? –bota zion irribarretsu.

– Zer nahi duzu ba esatea? –erantzun zion Juan Josek nora begiratu ez zekiela.

Mailok berakatz-zopa bero-beroa jarri zion aurrean.

– Ba zen garaia, Juan Jose! Bazkaltzeko garaian deitu egin behar zenuen sikiera.

Ohi bezala zopatatik bururik altxa gabe jarraitu zuen jaten Juan Josek. Nabarmena zen Mailoren haserre-antxak jolasetik gehiago zuela benetako trumoiaren atariko lainotzatik baino. Senarrak gainera handi samarra bazetorkiola bai, baina ezin zuen azertatu zer.

– Etxeberritxoko Luisek esan dit gaur goizean sartu direla grebalari denak lanera. Txanpaina daukat freskatzen. Aterako al dut.

– Bai, bai, atera.

Juan Josek txanpainaren aparra bere edalontziaren gainak hartzen ikusi zuen. Bat, bi, hiru, hamar, hogei... burbuilak nola aienatzen ziren behetik gora, bere ordubete lehenagoko poza nola lurruntzen zen eta udazkeneko haize beroak nola zeraman bihotzeko zoko lizun batera. Labanarekin platerean okela mozten zuen bitar-

tean ahopean amorru etsituz atera zitzaion hitz bat.

– Frantsesak!

Txoria bezala

Bost minutu inguru da hil naizela. Oraindik gertuegi daukat bizialdia, nonbait, eta lurrun astun moduko batek nauka hartua. Kezka. Munduaren zama, une batez, neure gain hartzera behartua banintz bezala.

Egunkaria irakurtzen ari nintzen. Egingo nuke parkeko urmaeleko antzarek ez didatela oraindik hildakoaren osoko izantza erantsi. Zurrun geratu naiz, burua beheratua egunkariaren orrialdera, irakurle arretatsuaren maneran. Pasaeran ni ikusita bakarren batek egin zezakeen beretzat, *Intelektual bat!*

Kezka bat daukat, ordea, heriotzako ordua deitoratzera nakarrena. Nire heriotzaren albistea kaleko usoen eran hegaldatuko da eta neu baino lehenago iritsi etxera. Eta han, aurrena saminak beteko ditu gela guztiak, korridoreak eta armairuak banan-banan, baina gero, ordu batzuen hautsa gauza eta bihotzen gainean pausa dadinean, susmo baten itzalak hartuko ditu sukaldeko azuleiuak eta sarrerako zorua, errezelen geri-

za leihoetan, kainuetako euri hotsa. Eta gezur txiki bat esatera ere jarriko dira Elena eta Jakes. *Badakizu, aitaren izena dago tartean.*

Ez da atsegina etxeko baten ustebako heriotzari aurre egin beharra, eta areago ez jakitea une hartan zertan zen Donostian hildakoa. Esango diete Gipuzkoako enparantzan aurkitu nautela txoria bezala, bankuan jarrita, egunkaria irakurtzen. Jakesek jakin nahiko du zein orrialdetan neukan zabalik kazeta, ezkutuko korapiloen bila, baina ez dakitela edo esaterik ez daukatela adieraziko diote lainotasunez. *Sub iudice* bainago orain; horretarako neurria eman dut sikiera.

Arrunkeriaren traza hartzen du horrela hiltzeak, desohore susmoari zipitz bat uzten dionarena. Hiltzera doanak erraztasunak ematea estimatzen den gauza da: non zebilen, zertan ari zen, etxekoei, azkena, urte luzetan lustrea emateko moduko hitzak esatea... dotoretasun eta gizalegez heltzea azken ordura ere, gardentasuna gailentzen dela bizitzaren hondarreko muturrera arte.

Aldean ibiltzeko astunegia jotako harri potor bat bezala botako naute lurpera azkenean. Eta

bihotz barrenean nekez aldarrikatu ahal izango naute emazte-semeak. Ez naizela inorentzat eredu izango ezertan, eta zorionez, erantsi behar nuke barruak agintzen didanari men egitera. Horiek ez dira, hala ere, niretzat hiltzeko lana larritzerainoko kezkak.

Soraio natzaie dagoeneko munduko ibilerei, ez dago nire gain ezer egiterik. Zilegi zaidan arduragabetasunak jan nau. Hil arte bizitzeko agindua bete dut. Kitatu dut zor hori. Nago hildako batzuen egoteko erari antzematen zaiela lor hori arindu izana. Nire egoera ofizialtasunez jantziko duen epailearen esku nago orain.

Tapaki batez estali naute. Oso oldozpen tristeetara eraman lezake hiritarra, bere zereginetan dabilela, hildako baten soin bizitzaz biluztuarekin topo egiteak. Hildako bat galdera bat delakoa topikoa da baina ez da gezurra. Eta gorputz bati darion galderak desatsegin izaten badaki. Plastikozko zintaz itxi dituzte nagoen bankuaren inguruak. Txundigarria da funtzionarioek lanean jartzen duten perfezioa eta tema, egundokoak eta bi ezer bere arrastotik irten ez dadin, Lurrak

dagokion orbita zehatzari milimetro laurden bateko xirkua egin ez diezaion.

Naukaten tokitik ikusi ez da itsasorik ikusten baina usain egin daiteke batzuetan. Nondik jotzen duen haizeak. Eta hemen ondoko kresalaren lurrin sarkorrak Zarauzko egunetara narama. Orduko sentimenduetara, orduko aieruetara, orduko bizira. Jada neure baitakoa ez naizela esatea badaukat biziminaren antsiak nahigabetu gabe. Oroitzapenak, euren oinak, euren bideak eta pausalekuak, euren gogo propiala eta apetak balituzte legez datozkit. Deitu gabeko gonbidatuak dira. Abegia eginen diet. Hor datoz milioika aukeraren artean hobetsiak, mundualdi bateko hondarreko argazkiak izateko ilun sakon honetan *hemen nago*ka, nabarmendu guran. Behar denean hilko dira.

Esan bezala Zarautzen ginen. Goizero pilota saioa egiten genuen fraileetako frontoian. Marea goian zenean moilara joaten ginen arratsaldetan. Jauziak, jolasak, igeri apur bat. Itsasoa behe samarrean zen artean eta kaira jo aurretik Getariarainokoa oinez egitea erabaki genuen, Santa Barbaran zehar. Han autobusa hartu aurretik pi-

lota saio bat agian. Nekatu beharra zegoen gure umea, Jakes ez baitzen geldirik edukitzekoa.

Eguzki errea zegoen. Bazkalondoan abiatu ginen. Torreoian kera egin eta giroaren bikaina, paisajearen zoragarria miretsi genuen. Jakesek zortzi-hamar bat urte izango zituen, nik berrogei beteak. Largabistak morralean gorde eta Santa Barbarako ermitarantz egin genuen galtzada zaharrean gora. Mahastietako hostaje trinkoaren azpian ibili ginen atseden bila, aterpe itzel haren pean mundu itzaltsu eta isilago bat kausitu genuen. Abuztua zen, mahats ale txikiak sorta trinkoetan bilduak. Pozaren usaina zuen gure izerdiak.

Zabalik zegoen ermita eta sartu egin ginen. Zurezko sabai urdina, ontzi irauli bat ekaitz arriskutik gordetzeko. Aldarean pare bat txanpon utzi zituen Jakesek. Presarik gabe gindoazen. Gosetutakoan jan, egarritutakoan edan, nekatutakoan gelditu, ikusi, gozatu. Ate parean tentagarri zegoen kanpaiaren katea, ezin eutsi izan genion tira gabe. Txakur baten zaunka erretxinduak erasiatu gintuen.

Jende asko zen hondartzan. Garbi ikusten zen urrunera arte. Haize hegoak luze du irismena. Iparraldeko kostako alderdi bat, hala ere, ganduak galarazi zigun.

Lahar garai artean masustak hartzen arantza sartu nuen eskuan. Pagoa eta urkiaren gerria nahastu genituen. Jakesek esan zuen lehorra uharte handiz osatua dagoela, kontinenteak hala direla, alimaleko uharteak. Itsasoaren zelai alderantzizkatua miretsi genuen gordean dituenak ezinaren keinuekin iradokiz.

Getarian autobusaren ordutegiari erreparatu genion. Ia ordubete geneukan eta errepide ondoko frontoia libre.

– Aita, hemezortzira partida!

– Baina irabazten badizut ez haserretu –erantzun nion gurasokeria zipriztinak neurrian banatu nahiz.

Sasoiko egonagatik ni baldartzen hasia nengoen, gerria gogor eta hanka zainak makal. Hortik aurrera jakinekoa, bigun behar dena gogor eta gogor nahi dena zimel eta maxkal, mahaspasaren pare. Jakesek poliki egiten zuen pilotan bere adinerako, ez haatik ni mendean hartzeko

beste. Ordura arte bederen. Postura dotoreak zituen, esku biak onak libre-libre askatzen zituenak, eta malezia pixka bat ere bai. Ni, aldiz, nire adinean pentsa litekeen txarrena nintzen. Indarraren puruz irabazten nion, Jakesekin ibiliz ikasia nuen nekientxoa.

Igandea zen. Festak amaitu berri eta ontziak ur handitako gazira berriro laketzen ariko ziren. Hila zegoen Getaria, uda betea izateko erori samarra, Gipuzkoako kostako xarmantasunaren ikur izatearekin une batez nekatuta edo, bat-batean bertako parriletan erretako sardina guztiak, txitxarro guztiak, itsas-zapo eta Afrikako bixigu guztiak elkartu eta aldi baterako su-etena eskatu balute bezala. Beharbada goizegi izango zen artean eta nire gogoetak beste eragileren batek petralduko zituen. Ondoren etorri zenak akaso. Ez dakit.

Kosta egiten zitzaigun pilota hirugarren koadrotik atzera mugitzea. Ez motela zelako, aurreko paretako harearriaren lakarraren kausaz baizik. Amorruz jardun genuen biok. Ez geunden elkarri barkatzeko. Estua zihoan partida. Behingoagatik Jakes konturatu zen pilota zabalean laga-

ta egiten zidala minik handiena, bat, bi, hiru ezker tirada sartu zizkidan eskuineko marraren ondo-ondoan.

Hamabi eta hamaikakoarekin aurretik jarri zitzaidan. Zoragarria zitzaidan ikustea gure haurra estreinakoz aitari irabazteko bidean. Baina aita ni neu izan, eta horrek ustez ezkutatzen asmatu nuen min-sorra sortu zidanik ezin uka. Nola esan, karel baten gainetik igaro eta hori ere betiko galdu duzun sentimendua.

Freskagarria eta pintxo bana hartu genituen Kale Nagusiko taberna batean. Bitxiak jo genituen han eskaintzen ziren batzuk. Eman behar gure herria euskal sukaldaritzak zabaldutako kreatibitate eldarniotik hoztu ezinik zebilela. Potoko hegaluzea maionesarekin, antxoila eta piper berdea ogi artean, txistorra, galeper arrautza eta urdaiazpiko xerra pintxo bakarrean... Psikodelia hutsa.

Lagun handiak bezala, nire besoa Jakesen bizkarrean, haren burua nire bular gainean erorita eseri ginen Zarauzko autobusean. Gogobetete-ta, nekatuta, pozik.

Eta lauso gozotan doazkit gomutatik irudiok, urrun hezetan aienatuz. Soseguz nabaritzen dut ari naizela joaten –galtzen esatea askotxo da–, hilagotzen. Ezin dut ezer, dena badoa hotzean, ez dramarik, ez ironiarik.

Ura zapaltzen ari banintz bezala nago Donostiako Gipuzkoako plazan, postontzi ahantzi bateko gutun biluztu bat bezala sartu naute plastikozko zorro batean, kezka gero eta ñimiñoago baten osinean murgiltzeari emana.

Markos

Nekeak jota zeukan Markos. Unatua. Zigarrokina *Zazpiak bat* hautsontziko Gipuzkoako armarriaren gainean saka-saka eginda amatatu zuen. Hamabi kanoi izun kea dariola errege arroztu baten aldamenean. Errautsaren antza ekiditeko eskuaz haranztu zuen ontzia. Zurrunbilo hark harrapatua zuen eta nahita ere nondik libraturik ez zuen ikusten, lotsarik gabe alde egiterik ez zuen. Behin horretara ezkero eramaten gaitzagoa zen, hala ere, egiaren daratuluari bere lana egin zezan uztea, bertan geratu eta laido horren peko bizitzea baino. Nahiz eta bere jarraitzaileen begietara hobenik ez izan, nahiz eta burkide bikainaren ospearekin joan, barruan zeraman bizi-bizi huts egin izanaren harra, hesteetan zebilkion ase ezinik berebiziko aukera galdu zuelako sugegorria. Ongi pentsatuta, espero zitekeen amaiera zen baina, behin bederen gauzak nahi bezala aterako diren itxaropena ezin zuen hil.

Alderraiaren suertea ezagun zuen lehendik ere. Jota, ardurazko zauriei zorne gaiztoa zeriela

baina osorik atera zen behintzat ataka hartatik. Moldatuko zen beste nonbait ere, beste behin. Berriro bere buruarentzat iragan ederrago bat asmatu beharko zuen.

Izarloka nola, halaxe pasa zen Markos Astarloa Azpeitiko ortzi aspaldi izarratu gabean. Indar betean ageri, tarte zoragarri batez gure zokomoko ilunak argiztatu, deblauki itzali eta joan. Goizetik gauera masa-fenomeno bilakatu zen, herria aspaldiko urtetan zain zegoen gidaria izan zen. Liderra.

Oharra sinatu, kartazalari tu eman eta kalera irten zuen. Natik utzitako autoa hartu eta Zestoako bideari lotu zitzaion ezkerreko besoa, ukabila barne, leihatilatik kanpora zuela. Goizeko hozkirriak bete zizkion birikak, zahartzera heldu baino lehen zapuztu zitzaizkion ametsen erauskinen gainean. Enparan kalea, Telefonika aurrea, Geltokiko Zubia... atzeko ispilutik joan bazihoakion etorkizuna galdua ageri zitzaion hondarrekoz. Herri itsusi hartako irudi panoramikoei krediduak jartzen ari zitzaion gogoan.

Herri-batzar izeneko hogeitsu laguneko bilera politiko batean nabarmendu zela ez zela, ardu-

rak hartzeko aukerak zerutik bezala hasi zitzaizkion esku artera etortzen. Aldez herriratu berria zelako eta bertako bizitzan txertatzeko bide egokia izan zitekeela iritzita, aldez etxekoari barkatzeko ez direnak kanpotarrarengan edergarri zaizkigulako maiz. Erantsiozu horri etorria, mintzo gozoa eta planta dotorea, langile ospea, janzkera itxurazkoa eta harrotasun neurtu bat, horra buruzagi ezpaleko bat.

Haren jardunarekin liluratuta, gutxi axola izan zitzaien bertaratutakoei Iñakik gaiztoz emandako azalpena. Infiltratu hitza erabiltzen ausartu ez bazen ere, *argiturri*-ren ebakerak nekez estaltzen zuen Iñaki beraren sakoneko gaitzondoa eta urtetan erasan gabeko buruzagi politikoaren gainbehera tamalgarriaren ageriko lehen aztarna jo zitekeena. *Izena handiegi dagokion argiturri bat* izan ziren haren hitzak.

Harripetik bezala sortu bazen ere, aurpegi berri bat gauza beharra zuen gure bizitza militanteak. Eta estimatu genion, hain ezti zitzaizkigun belarrietara haren ahotik isuritako eleen xirripak, esaldien lanbro fina, ahoskeraren jauzi

leunak. Hain ametsez kargatuak, hain hegalariak, hain jori, hain txori, hain ziren hain...

Hurrengo herri-batzarrak Markosen erakarmen indarraz betetzenago joan ziren, hanpatzenago, itsutzenago, horditzenago. Maiztutako esaldiei eta hitzei leinuru berria aurkitzen zien, gozatu berria ematen zien ordura arte panfletoen lerroarte itunetan eta azpeitiarren batez besteko mintzo gozakaitzean hilduratuta zeutzan *askatasuna, herria* eta *borroka* legezko kontzeptuei. Horrela, astiro-astiro, kutuna, araoa bilakatu zen gutako askorentzat Markosen izena, ahora ekartzeaz bat sendotu egiten ziren gure konbikzioak, ezabatu gure burubideen lausoak, geure kaskarrean, gu ere handitu egiten ginen apur bat izen miresgarri horren ubera oparoan.

Urretxindor hura nondik sortua zen inork ez zekien. Gutxi ardura zigun horrek azken beltzean. Berekoi jokatzen dugu askotan. Bestelakoan gainera etor dakigukeen ardurak besteren bizkarrera lerratzen ikusteak damaizun lasaituak arintzen du, eta ez gutxi, bizitzearen lor astuna.

Su-etena aldarrikatua zuen ETAk. Nork ez daki hori dagoeneko. Tiroak apaldu eta bihotz

askok irteera seinaletzat hartu zuten isiltasunaren eztanda hori. Epelak berotu egin ziren, apalak harrotu eta beltzak zuritu; eta alderantziz. Ordura arte mortu ziren parajeetan landare modu ugari hasi ziren hazten: barazki, lekadun, labore, fruitu... Sastraka, zuhaitz eta belar jende orotarikoak, luze ondo gordean edukitakoak itsastu eta loratzen.

Herriko komitearen aurrean iraultzaile agertu zen, eskarmentu handiko internazionalista, hamaika borrokatan zaildua. Iñakiren bekozkoaren gerizak ez zuen atertuko, hala ere, Markosi zegokionean. Inoiz pauso bat atzera ez. Ezkerreko begitik sartua zitzaion ezagutu orduko. Areago Natiren soslai hotza zelan beratzen zen ohartu zenetik, ia urtzeraino esango luke. Denok daramagu narrasean maitale zapuztu bat barruan.

Aspaldi, Franco hil eta urte gutxira espetxean egondakoa. Ertamerikan ibili omen zen laurogeiko hamarkada erditsuan. Handik itzuleran borroka alternatiboei eskaini bide zien bere kemena. La Salveko kuartelean birritan ostatu hartutakoa, torturen arrasto beltzak erakutsi izan zizkigun inoiz lagun hartuenei. Izutzekoak.

Eskola handia zuena bistakoa zen. Ordezkaritza bat betetzera heldua zen Azpeitiko Institutura. Matematikak eta etika. Zuzenbide ekonomikoa ikasia zuen Deustuan. *Deus Town-etik Lohi olara, kaka lantegira*, gustuko aipua zuen. Futitzen zen jesuitez, futitzen zen San Inazioz. Hari edozer barkatzeko geunden.

Udagoien hura bezain gogoangarri etorri zen ondotik negua. Presoen aldeko plataforman aitzindari, Lizarra-Garaziko taldean aurreko muturrean, sindikalgintzan gailen. Markos gora zetorren aparra bezala eta beldur ginen, aurki gure Azpeitia tristea plaza txikitxoa ez ote zen gertatuko gisako idisko politiko batentzat. Alde egingo zigula. Utzi egingo gintuela berriro betirako geure urolatartasunaren kalma zurian kirasten.

Eta etortzekoa zena ohi duen doitasunez iritsi zen. Maiatzaren aurrenarekin jo zuen sabaia Markosen gorabideak. Ordurako aski lotuta ziren ekaineko udal hauteskundeetarako zerrendak. Oraindik erabakia herri-batzarrak bedeinkatu gabe egon arren, denek jotzen zuten Markos Azpeitirako alkategai egokiena. Nork kenduko zion

sekulan EAJri alkatetza bestela...? Halako kontuak zebiltzan bolo-bolo.

Maiatzaren Lehena. Manifestaldi bikaina euripean: LAB, ELA, ESK, EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuak uztarri berean Iruñea zaharreko karriketan. Zoragarria.

Azpeiti-Azkoitiko autobuskadak ez zuen askorik gizenduko batasun hura baina eman zion kolore apur bat Golem zinemak eta Sarasate pasealeku arteko txangoari: irrintzi bat han eta oihu bat hemen. Euskal langileriaren unibertsoan neurrian nabarmentzeko tamainan. Sateliteak.

Baina Markos izan zuen eskas autobus hark, Markos zuen eskas langileen erakustaldi paregabe hark, egun hark Markos zuen eskas, peitu, falta. Gripe zikin batek ostu zigun.

Bezperan joan zitzaion bisitan Nati azkenekoz. Gaixotasunaren arrastoak artean sakon margotuak zituen Markosek soinean. Laranja zumo bat ari zen gertatzen. Aurreneko lana hautsontzia hustea egin zuen. Etxe hartan zer non zen ondo zekien lehendik, Markosen bihotzean ere bai. Ordura arte hala uste zuen behintzat.

Zaputza hartuta irten zuen Markosenetik. Onean eta txarrean ahalegindu zen. Maisuki dantzatu zituen maitekidearen berotasun konplizea eta burukidearen arrazoibide irmoa. Sukaldeko mahaian Natiren esku artetik ihesi labaindu zen aingira zen Markosen esku hotza. Hainbestekoa sumatzen zuen bere baitan gogoaren oldarra, non aitzakia merkea irizten baitzien Markosen argudioei bata bestearen atzetik. *Etorri egin behar duk, bihar ezin diguk huts egin* ekiten zion Natik behin eta berriz, *etorri egin behar duk*. Alferrik. Markos bere gaixotasunaren harresi zurbiletan gotortu zen. Aterpe hartatik *ezin dinat* herabe eta triste bat baino ez zuen jaulkitzen tarteka zintz eta eztul artean. *Ondo zagok* esanda danbatekoa eman zion kaleko ateari. Muzin egin zion bertan afaltzeko gonbitari. Beharbada orduan ikasiko zuen Natik ere lilura eta maitasuna ore bateko opilak ez direna. Eta bata dastatua zuelakoan bestea janda egongo zen beharbada. Beharbada.

Markosik gabe baina handikiro eta ozen eskatu genituen hogeita hamabost orduko lan astea eta soldata soziala Iruñeko kaleetan. Geure egin

genituen lider sindikalen hitzak. Txalo beroz agurtu genituen. Handik Jarautan barrena bizpahiru basoerdi hartu eta Labrit frontoia jo genuen lagunarte giroan proletario gosea berdintzera. Ohi zuenez begipe zorrotzean ginduzkan Iñakik, hala ere ez zuen aukera galtzen bateko zein besteko ezagunak agurtzeko. Laster gure mahaitik aldendu eta bi mahai harantzago jesarri zen Arratia aldeko jendearekin. Begirazun sutua zuzentzen zigun bertatik. Alboko lagunak esaten zizkionak entzun egiten zituen miraz. Entzun eta entzun ari zen. Igorreko gazte hura Iñakiren ganbara betetzen ari zen heinean, ostargi zabal batek argitu zion aurpegiera, kopeta. Tartean-tartean ahoratzen zuen oilasko izterrak garaipenaren okelaz mamitua behar zuen inolaz ere.

Xarmaren katea etenik gainbeheraren pendizak ez zuen azkenik. Bigarren zirgitaldia nozitu zuen Azpeitia aldeko militantziak urtebete azpitik. Iñakik ahogozatuz aletu zituen aletzekoak, Markos izena Natiri zuzendutako destainaz ahoskatzen zuela herriko batzordean. Zeanuritarra

zela eta Deustuan ikasia zelakoa egia zen bederen. Hortik gora gutxi.

Euskadiko Kutxan, Bilboko sukurtsal batean egin zituen antza pare bat urte beharrean. Lar arintxo aberastu zela. Hogeitaka milioiko diruzuloa tarteko botako zuten lanetik. Barruan ere egon ote zen; lapur arrunta noski.

Ertamerikatik gertuena Bilbon zen ibilia, San Antongo zubitik hara, Bilbo Zaharreko kaleetan nazioartekotzan sexu bidezko trebatze trinkoan. Torturak, berriz, Barazar jaisten esku beltz batek –errepresio espainiarra ausaz– marraztutako bazterra jo izanari zor zizkion. Gizajo gaizto bat.

Ez zen lan samurra izango jendeari azalpenak ematea. Zelan aurre egin Markos auziari? Bluff bat izan zela aitortu apal-apal eta deslilluraren ekaitzari eutsi ahal moduan? Hurrengo herri-batzarrean salatzea ere bazegoen, hori onartzera, baina, toki ederrean geldituko zen alderdiaren izena. Berriz ere azpeitiarren buru argitasuna eta adimenaren ospea sua bezain bizkor zabalduko zen lau haizetara. Azkoitia beti dago nahi baino gertuago. Hortik osatuta geunden lehen ere. Urtetako lan politikoa ere egon zitekeen

arriskuan gainera. Ez zen taktikoki egokia. Hauteskunde kanpainaren atalasean areago. Iñaki zen mintzo zena. Pragmatikotasunaren ur epeletan must egiteko bidean jarri ginen herriko buruzagitza politikoa, zuzpertutako gidari historikoaren gerizpean.

Hauteskunde zerrenda onartzeko herri-batzarrean Iñakik emango zuen berri. Leuntzen jakingo zuen bonbazo bat. Militantziaren deia. Lehentasun kontua. Ertamerikan behar zuen alderdiak. Nazioarteko egituran giltzarria izango zen Markos. Atzera, gezur txiki bat gehiago eramaten asmatuko zuen azpeitiarren urdail zurratuak.

Gogor eztabaidatu zen. Erantzun gaitzeko galderak lehertzen ziren Sindikatu Zaharreko aretoan. Zergatik? Zergatik? Zergatik? Hamaika begi lausotu zuen asanblearen dramatismoak. Zergatik joan behar zuen? Zergatik abandonatu gintuen? Txakur bat bezala alde egin zuen, ezer esan gabe. Haserre zen jendea Markosekin. Hauteskundeak. Umezurtz sentimendua. Tragedia bat.

Iraultzailearen eskuzabaltasuna goretsi eta aldarrikatu zuen Iñakik. Bero hitz egin zuen. Egoki. Azpeitiak maite zuen.

Markos Astarloari argi azaldu zion Natik zertan ziren gauzak. Edo egiaren lauzapean zapuztuta ito edo santu usainean desagertu. Isil, muker entzun zituen Markosek. Hila zegoen, ez bristadarik bere soslaiak, ez pozik bere soin behiala lerdenak, hilduratuta bere hizketarako grina. Herritarrek sinesmen sendoz suspentsuan hartu eta zeruraino jasotako idoloa bere begien aurrean zetzan sugearen pare. Ondo nahi bazuen bi baldintza zituen nahitaezko: isiltasuna eta desterrua.

Gorrian pasa zuen azken semaforoa eta eskuinera jo zuen Markosek. Zumaiako geltoki aurrean laga zuen autoa. Natiri idatzi bezala geltokiko tabernan utzi zizkion giltzak. Ohar hura izan zen bere azken mezua, garrantzirik gabea, hutsaren sinbolismo hutsa. Ez zekien zergatik sinatu zuen.

Ortzi urdin bustian hodeitza mardula kargaontzi astiroa zen abantean barru aldetik kostara hurbiltzen. Erdizka zirriborratutako irriba-

rrea eskaini zion Markos Astarloak eguerdiko eguzkiari nasatik.

Poltsa eskuan zuela beste geltoki bat etorri zitzaion akordura. Beste poltsa bat. Beste sasoi bat.

Iraganeko lauso ederretsitik ikusi zuen bere burua Bilboko bulegoan. Espero bezain erraz gertatu zitzaiola Euskadiko Kutxako altxorra arintze hura. Seul-88 inprimatuta zuen kirol poltsan sartu zituen ostutako diruak. Urrearen distira zuen artean beretzat ekintza haren gomutak: ustebako deia, lehen orduko zirrara, beldurrak, zalantzak, hitzordu klandestinoa bestaldean... Larunbat eguerdia zen. Negua. Pauso guztiak nola aurreikusi hala jazo ziren, aurrez bizi izandakoaren segurantziaz. Inon arazorik ez. Muga pasa eta garaiz heldu zen geltokira. Hitz eginda bezala diruak utzi eta etxera buelta. Aspaldiko nekea eta arrakastaren aho gozoa berritu zitzaizkion Markosi urrutiminez. Diruak hartu zizkiona bera bezain urduri zegoela begitandu zitzaion orduan.

Hamar urteko hesi baten gainetik jauzia egin eta Zumaiako geltokian pausatu zen Markos har-

zara. Oroitzapen maiztuek zamatzen zioten poltsa, oroitzapen gozoek, oroitzapen minek. Joan, joan, joan... nonbaitera buruz zihoazen hodeiak ostarteak saihesten. Ortzia zabal-zabal irekitako leihoa zen, gizon bat zegoen bertatik begira.

Trenak txistua jo zuen. Nasako airea berotu zuen motorraren lamadak. Markosek zigarro isiotu berriaren kaligrafia bihurriari eman zion arreta.

Biaoa

Guri lur emango digutenak jaio ziren. Langileak, publizistak, abokatuak, gidariak eta nekazariak dira. Batez ere nekazariak, hildakoari lur eman eta tristura antzua erne. Aritmetika ebazpen xalo bat baino ez.

Beste lagungarririk gabe bota zidan Esterrek:

– Txoriengatik jakin nuen Ines hila zela.

Izerditan ikusten ziren teilatuak gelako kristaletik, izerdi larria eta hotza. Ohean bildu gintuena larrua jotzeko nolabaiteko poz-antxa izan zen. Gero, beste askotan bezala, larru kontuak alde batera utzi eta aitzakia polita bihurtzen zen ohea eguneroko bizimoduak sexua adina ukatzen zigun elkarrizketari hondarreko aterpea eskaintzeko.

– Nolatan, ordea, txoriengatik?

– Bai, hil zen egunean ez zien ogirik bota.

Ester besarkatzera egin nuen, irribarrea sortuko zion zerbait esan nahi nuen, besoa pasa nion gerri gainetik eta isildu egin nintzen. Kope-

ta behar da errukia diozun pertsona bati maite duzula esateko.

– Ez dakit zu gabe zer egingo nukeen.

Maitasunak ez du beti maitasuna zorretan. Inoiz badaki doako ondasun legez jokatzen edo truke-modu bitxietara makurtu ohi da. Nik futbol zelai bat betetzeko beste maitasun emango dizut eta zuk ekatzu gaizkiulertu hunkibera bat, ustezko segurtasun eta atseden poxi bat horren aldera. Ezkerreko izterra gerri gainean jarri zidan Esterrek, eta orduantxe bertan hilko banintz, zeruan nintzateke betiko. Horrexek behar zuen munduko hainbeste oinaze eta nahigaberen ordaina. Aterpetxe bateko sabaian izena eta data uzten duen gaztetxoaren pare sentitzen naiz ordukoa gogora ekartzean. Oroitzearren egindako ahaleginak betikotasunari egiten diogun amarrutzat daukat, egunerokora ekarritako orain xumea, besterik gabe.

Ester lau bider pasatzen zen Inesen etxe aurretik lan egunetan. Arratsaldean behetik deitzen zion eta elkarrekin basoerdi pare bat hartuko zuten. Ia-ia auzoak izan arren, eta Azpeitia

herri koskor bat, ez zuten tratabiderik izan oso berandura arte.

Herriko alaba bakarrak suertatu bide ziren bezero artean aurrezki kutxak zozketatutako bidaia batean, eta herritartasuna itzuri ezinezko sarea bilakatzen da etxetik atera orduko. Egeo aldea ez bazen, Egipto izango zen, ordura ezkero oso-oso elkarren hartuak izan ziren. Edozer zela ere, beti zuen ahotan bere Ines. Eta aukeran azkartxo hil zitzaion Ines, istripua izan zuela-ez zuela, kolpeak barruak mugitu zizkiola, kontua da Ester jabetzerako azkenetan zuela laguna. Bizi denari nekeza zaio hilko dena gabe egunerokotasuna irudikatzea, eta hiltzera doanari horma sendoegia gertatuko zaio inoiz betikotasuna. Ines, esate batera, Atila edo Zola batekin ore batean sartzea ere.

– Txoriengatik ere hartzen dut pena.

Ondoren Inesen hileta nolakoa izan zen kontatu zidan, nola esana zion lagunik handiena bera zuela. Orduan jabetu nintzen Esterren minak zer etorki zuen. Lagunik handiena. Dutxan, arropak eskegitzen, lanean, ohera sartzean. Nik uste lagunaren bakardadearen han-

diak izutzen zuela Ester, eta tristatzen. Bai, badakigu heriotzak bakartze sakona ekarriko digu-na, baina Esterren negarra Inesek, sasoi betean zela, Ester horren lagun mina ikusteak ernetzen zuen nire aburuz.

– Maite nuen, ez hainbesteraino baina.

Musu eman nahian ezpainen bila galdu nintzen. Galdu egin nintzen. Mehe zetorren Urola ibaia, arratsaldeetan ez zuten goizaldean adinako zalapartarik sortzen ibaiko ahateek. Gaurko zeru hori pertsona hilak bezala ibiliko genuen memorian nahi besteko zehaztasunez osatu ezinean. Esan gabe doa maitasuna. Esterrek negarrari emango dio oraindik, telefono kabina baten aterpea beharko du edo, aldi baterako, ibaiko uroiloei ogi koskor bustiak botatzen zaletuko da. Ines herenegun-aitzinetik hilda dago –*txoria bezala* esan zuten–, eta Ines bera da inoiz jakingo ez duen bakarra.

Ebakuntza

Behera begira ez nuen ikusten ahal pixak konketa zurian eratu geriza. Buruz isurkiaren bidea jarraitzera egiten nuen. Kainu estuetatik hodi zabaletara, eta hodietatik estolda nagusiraino. Erdoka definigaitza osatuz, zomorroen ezkutuko beldurraren begipean. Zakil soraioa habiaratu, txarretera lotu eta korridorera egin nuen berriz. quirofanos, no pasar. Luis hilko balitz nire bizitza zertan aldatuko litzatekeen jarri nintzen pentsatzen. Etxekoei gorputza eroaten lagunduko niela, paperak betetzen, hileta gertatzen. Eta nahigabea, azukre koskor bat nola, joango zitzaidan urtzen denborarekin, harik eta neure baitako zuntz eta guruinetan aienatuz makalaldietarako gorazarre txipatu bilakatu arte.

Betiko zarratuak ziruditen kirofanoko ateek, plastikozko xafla oker haien atzean erbeste ezkutu baterako nasak gordeko balira bezala, despedidaren samina debeku baten pean arindu nahiz edo. Berriz ere bihotzeko mugarriak tokiz aldatu beharra etorriko ote zitzaidan. Ez nengo-

en onartzeko Luisek berekin eramatea urtetan isilean gordetakoa.

Itxarongelako besaulki maiztuetara itzuli nintzen, erne, banekien-eta kirofanoko ate ostean zelatan behar zutela erizainek, Luis gaixoaren gorpuzkinak ateratzeko nik noiz alde egingo. Kafea hartzeko premiari muzin egin eta han jarraitu nuen, aurrean nuen moja xaharrari ezikusia eginez. Neure burutazioen konpasean zorabiatzeko zorian nintzen. Noiz horman zintzilik zegoen okilari erreparatuz, noiz gogoeta itunei amore emanez, mundutik aparte ikusten nuen neure burua, punpuila isolatu baten barruan. Luis, nazioarteko errai-trafiko sare bateko biktima jotzen hasia nintzen unean ate hotsak zutitu ninduen.

– Ba al dakarzue? –hautsi nuen erizain baino itzain itxurako morroskoa ageri bezain laster.

– Nor? –txakur muturra zorroztuz.

– Luis Garcia, nor bestela? Azken zortzi ordu honetan ez duzue beste inor sartu...

– Aizu!, jakin beharko zenuke hemen etzanda sartzen dena ez dela bere kabuz ateratzen gehienetan...

Zaunka egin eta etorritako bidetik ezkutatu zitzaidan. Han geratu nintzen aho bete hortz, ez egitekoren bat egiteko prest unearen larriak epeldu ez balizkit barrenak. Errudun sentitu nintzen, seguru nengoen Luisen osasun galtzearekin zerikusi zuzena nuela. Hori lehendik banekien gauza izan arren, ordura arte ez ninduen horren betean hartu kulparen keizuak. Su emango nion etxe santu hari, su emango nion lekaime ergel haren abituari, su eman garunak zulatu nahi zizkidan okilari, su neure memoriari, su, su, su... eta komunean sartu nintzen egarriari eutsi ezinik. Inolaz ere larritasunezko begiak bilatuko zizkidan mojak, buruezetza egin zidan-eta itxarongela paretik pasa nintzenean. Ez ote zegoen Luis bizkarrean hartu eta zulo hartatik ateratzeko modurik; ez al zen hobe, aukeran, hiltzekotan lagunaren besotan hiltzea –aldirietako areka bazter narras batean izanda ere–, esku arrotzek barruak hustea baino. Zarata atera bai, baina, beste behin, nire adoreak labur zituen oinak.

Euria ari zuen, nola ez. Urri osoan egun bakarra egin zuen ateri. Ni autorik gabe nintzen, afaria genuen ezagun batzuen baserrian eta Luise-

nean joan ginen. Mozkortu artean afariek ezer apartekorik eskaintzen ez dutela uste den adinekoak ginen. Sei urte bai.

Lagun asko ginen afaritan, Luis eta ni mahaiaren mutur banatan egokitu ginen. Sortu zen eztabaidan ere larre-behiak mendigoizaleari bezala begiratzen genion elkarri, miraz, bakoitzak geure iritziaren aterpetik. Hasi berria zen euskal presoen sakabanatze politika; gu mutur banatan. Azkena esatekoak aurrena esan, eta aurrena esatekoak isildu.

Biontzako larria zen gai baten inguruan ez ginen egundo horren urrun jarri. Begiak ubeldu arte edan genuen, gogoa belztu arte sumindu. Zoratu egin balitzait bezala ahora etorritako denak bota nizkion. Biok hitz egin genuen sobera... nik soberago.

Korridore hartan ematen nuen pauso bakoitzeko mintzenago ari zitzaidan odola. Beldur nintzen, halako batean erietxetik irtetea erdiesten banuen, lehendik ezagutzen nituen herriak, kaleak, tokiak betiko galduko ez ote nituen, ni han nintzen bitartean geografia unibertsalaren legeak aldatuak ez ote ziren, eta nirea ez zen

beste garai batera etorri beharko nuela adurraren indarrez. Korridore barreneko leihora jo nuen, bezperako aparkalekua ez zen aldatu, nire autoak mesede galanta egin zidan han egote hutsaz, bere kaskarrean. Zuzper samartuta hurbildu nintzaion mojatxoari, jesarri eta lehen baino harroago begiratu nion argazkiko okilari. Irriantxa egin niola uste dut aurrean nuen uroiloari, gurutzea zeraman paparrean zintzilik, libraerdiko trozoa bai.

Luisek ikasia behar zuen, honezkero, bakarrik egotea zer den mahai hotzaren gainean, anestesiaren peko ur hotzetan igeri baldarrean, ebakiaren sorgor hotza, harri hustu bat sabelera biltzen. Errukia nion. Zoruak amorruz jotzen zizkidan oinazpiak, izerdi likatan nituen eskuak. Ondo nekien zerk gaiztatu zuen gure artekoa, urteak ziren hori aurpegiratzen ari zitzaidala bere gaixotasuna medio.

Oinez jaitsi behar izan nuen afaltzetik. Haserreak haserre egunak argituko zuen, eta askorik estutu gabe ibili nintzen azkeneko tabernak ixten. Egunkari saltzaileak txabola giltzatzeko tenorean hoztu nuen ohea. Bizpahiru hormatan,

ageri-agerian, gorriz irakurri nuen Luis Garcia, txakurra! Ezingo nion sekulan barkamenik eskatu bezperakoagatik. Espero nuen ez galdetzeko adinako bihotza izango zuela, baina, galdetzekotan, buruz nekien zer esan, eta hala erantzun nion, «Bai!».

Ez genion utzi horregatik lagun ibiltzeari, lehen bezain sarri egoten ginen elkarrekin, laster, ordea, makaltzen hasi zen osasunez. Hilabete gutxiren buruan pisu asko galdu zuen eta, urtebetegarrenean edo, erretiratu egin zen. Hesteetan omen zuen gaitza; ordu luzeak egiten genituen Luisen etxean kontu kontari. Hilabetetik hilabetera, ia-ia astetik astera, mermatzen ari zitzaidan laguna begien aurrean, ezkoa balitz bezala. Behin tanpez bota nion beldurra zela barrenak jaten ari zitzaiona, baina, gaia saihestera egiten zuen gaixotasuna aipatu orduko. Tipo minbera zen. Astebete lehenago esan zidan ebakuntza egin behar ziotela, heste puska kendu behar ziotela. Eskatu ez zidalako lagundu nion erietxera.

Ez dakit zenbat denbora neraman gogoetan, ni ohartzeke alde egina zen moja. Okila eta biok

ginen, bakoitza geure tokitik, elkarren beilan jarraitzen genuen bakarrak. Zerbaiten zarata barrundatu eta trantsitura irten nuen. Oraingoan bazekarten.

Kirofanoko ate aurrean eskuaz agur egiteko besteko kemena bildu zuen. Ni igogailu parean nintzen zain. Gorriak ikusita ozta-ozta salbu denaren hazpegiaz irribarre zabala eskaini zidan. Muzin egin nion eskua luzatu zidanean, eskua ohetik zintzilik zuela utzi nuen, gora eta behera, baso uretan izotz koskor bota berria. Erizainak oker begiratu zidan, zoruko lauza zuriek oker begiratu zidaten, erretzeko debekuak oker. Esku bat ikusi nuen igogailuan azkena sartzen.

Autoko giltzak atera nituenean, bezperan utzi nuen mundu berbera han zela jabetu nintzen. Neure kautan, Luis aspaldi joana zelakoa egin nuen, paperik gabe, hiletarik gabe, garbi-garbi, urrezko sastakai batek muinetik erauzia. Euria ari zuen berriz, euri-zirina kaleak, erretenak, estoldak, gogoak basitzen. Modako abesti baten lelo merkea murduskatzeari ekin nion.

Musuzapia

Haize zoroa zebilela esaten zuten, jendearen penak zuztarretik erauzi nahi balitu bezalakoa. Eta zapia han geratu zen Igareta baserri ondoko arta-soro batean zimurturik. Martari eskumuturretik eroria behar zuen, han ikusiak zituzten Nuarbeko bi umek Manuel tabernaria eta biak txintxirrina jotzen, elkarri azpiak egiten, txortan. Itxurazko emakumea egongo zen, baina hirurogeita hamaika urte, ederrenak izanda ere, hirurogeita hamaikatxo dira. Ditxa handia izango da pasiera aterata oraindik gorputzaren apetak horrenbesteko aurrera-karga eragitea, bide ondoko soroan ezsi eta ezno horrela ekiteko.

Lurrin gozoa zerion. Alargundu baino lehenagokoa. Dena seguru zenekoa, gaurkoari biharkoak jarraituko ziola, eta burubide bati arrazoibide bat eta hurrengo sendoagoak lotuko zitzaizkiolako sasoia. Hari egin zion kolpe armairutik telefonoak jo zuenean, ez zuen aukeratu Martak, haren eskuak bilatu zuen itsu-itsuka goiko kaxoian, bidean zetozen malkoen lagun behar

zuela konprenituta. Kukuerriko bidean aurkitu zutela kamioan trabeska, zerraldo. Batzuentzat burua galtzen hasi zen senarrari lur heze eman zionean, besteentzat lotsa hobiratu zuen gizon zenaren kutxan.

Burutik beherakoarekin zen batean Karmen lagunari eskatu zion behin Azkoitiko plazan. Azoka eguna zen, larunbata, eta Martari garbitu eta adiskideari itzultzea ahaztu. Karmenek bizkiak izan zituenean burkopean zeukan, hozka egiten zion aldika burko muturrari musuzapia ukabilean bihurrituz, eta gelako sabaian munduaren akabera, edo sikiera minaren amaiera esan nahiko zuen seinaleren bat ikustea izango luke nahiena orduan. Sabaiak baina, zuritasun mutua besterik ez zion adieraziko, letxera eman berriko ankertasun soraioa azalera osoan. Musuzapiak bestela hartzen zituen Karmenen malkoak, beste gozo batekoak zenituen harenak, gazteagoak, bizitzaren alderago etzanak Martarenen aldean.

Eta lehenago urteak egin zituen gordean Karmenen poltsan. *Linge basque* iragartzen duen denda batean sartu zen Ander, bere bihotzeko

lagun iheslariari bisitan joan zitzaizkion hartan, detailetxo bat. Ehundaka lauburutxo zuri fondo azulean lerro-lerro denak. Lauburutxo zuriak fondo azulean, Anderren eskuak Karmenen gerriak oratzen eta ontzien tutu errimea Ziburuko kaian. Euren gorputzen gozoa mugaren alde batetik bestera garraiatu zuten. Etxerakoan kera egin zuten Hondarribian. Makatza iritzi zion gau hartan Anderren tuari ahoan, eta geroak garraztu baino ez zizkion egin aieru eta gomutak.

Galiziatik, Celanovatik, heldu zitzaion agurreko gutuna. Handik gertuan lana sortu zitzaiola, hargin lanbidea ikasteko aukera zuela eta deituko ziola hurrengo batean. Eskutitza poltsa maiztuaren zolan paratu zuen, lauburutxoak eta fondo azul haren epelean. Aurrerago aita bat asmatu behar izan zien alaba bikiei. Argazki bitan ederretsi berez ederrak izan ziren egunak, eta irudietan ageri ez zirenak leundu. Alaben aurrean politikari egotziko zion berak beste zer edo zeri bilatzen zion kulpa.

Martak erakutsi zion behin Espainiako prentsatik jasotako albistea, Anderrek Mexikon behar zuela zioena, eta ondoren Anderri, munduko

edozein polizi-bihotzen kutixia ernetzeko adina ekintza arbuiagarrien zerrenda luzea erantsiz, bide batez. Ez ziren sinestekoak, alabak eskolako adinean ziren zegoeneko, eta lauburuekiko painelua gutun jada zaharminduaren –hitz umotuegiak, hitz mailatuak, hitz ostenduak, janak eta behin eta berriz marruskatutako hitz biribilak– aterpetik jaregin zuen. Handik Martaren eskurainoko bidea erraz egin zuen, irristan bezala, eskutik eskura.

Barru-barrutik erne zitzaion gizon beharra Martari alargunberritan. Atsoa zen eta atsoa zegoen, eta bi jenerotako atsotasunak itsatsiko zion Manuel donadoaren maitasunaren aurrean, Nuarbeko zulora ekartzerainoko gustagarritasuna. Badira bakartzeko beldurrak diruak beste dezakeela munduan sarri-sarri erakusten dutenak.

Eta han zegoen zapia arta-soroan, udazkeneko zoztorren artean, sortu gabeko nazio bateko bandera, bildu gabeko sentimenduen bandera eraitsi bat. Haizeak noiz hartuko. Haizeak eta urak noiz garraiatuko ehundaka lauburutxoz osatutako hosto zimela Malkortxon behera, eta Landetan barrena, Ucin altzairutegiko horma eta

ur uherretako oztoparriak lehia gogorrean gainditzera, uraren indarrak noiz jarriko ahate berantiarren ikusgarri Enparango zubi parean, ibaiak noiz utziko Eskuztatik aurrera, Lasao baino lehen, ubide bazterreko adar batean zintzilik, ilunabar beltzari diosala egiten, aldiro autoen argi luzeek itsututa.

Barru-giro zegoen. Denek zuten etxerako presa, behin-behineko atsedena betiko bakearekin parekagarri balitz bezala. Mundua ere etxe sendo bat dela sinetsi nahi balute bezala denek batera, bakoitzak bere tokitik. Aterpean harrapatuko zituen euriak behintzat. Haizea apaldu ahala eman zion euri trinkoari, bortitz, okerka, petril haustuen gainean, lantegien gainean eta teilatuen gainean, bailaran behetik gora, Azpeitiko teilatuetan, Urrestillako teilatuetan, Nuarbeko leihoetan euria joka.

Itzalak

Lizeagatarren alaba zaharrenarena gogorra joan zen. Gertatutakoa alukeria bat izan zen, alukeria handi samarra aukeran.

Gogoa horretara jarri eta esaten duzu, hainbeste itxarondako berria heldu, denok itxaropenaren mirabe izatera etorri garen garaian zer, eta orduantxe zertu. Badakizu zeruan ere istripuak izango direna, saminak aldian aldiko suetenak baino ez dituela onartzen bere eskuzabalean. Eta beti espero duzu gauzek beste nora bat har dezaten, gertaera latzegien albistea noizean behin arintzeko lain badarik ere.

Ibili-ibili eginda, segundo laurden batean mamitutako tragedia baino ez zen izango, herri txiki bateko gertaera tamalgarri txiki bat, uda amaiera hartako poz giroa erdi-zapuzteko adinakoa ozta-ozta egin zuena. Izan ere, egunero izaten dugu handiagoen aditzera. Baina nork bere etxeko atean sumatzean sortzen du keizua balbeak. Noski. Zenbat eta urrunago jo sorgorrago gatzaizkio hil kanpaiari.

– Ederra egin duk! –atera zitzaidan esatea neskatoa harrapatu zuen txoferrari, hura autobusetik jaitsi orduko.

Gure okindegi ez baina, ogi saltokiaren aurrean gertatu zen ezbeharra. Adi-adi nengokion giro muxinari begira. Bezero gutxien ibiltzen den garaia izaten da arratsaldeko tarte hori, zersuma egoteko egokiera. Bostak jota ziren, artean ETAren su-eten aldarrikatu berria beste konturik ez zerabilten irratiek. Pozak ia jendetasunezko kontua ematen zuen, inori erakutsi beharreko derrigorrezko aurpegiera, dena zen onginahi eta barkamen lerde-jarioa. Aspertua nindukan egoera berriari eman nahi zitzaion antzak. Gaiztoz, imintzio eta keinu festa, itzal erakustaldi bat besterik ez nuen ikusten.

Listukada bezala jausi zen erakusleiho aitzinean Ainitze Lizeaga. Gorputzak ez zuen odol arrastorik. Katakume bat errepide bazterrean loeroan etzana. Espaloiko ertzaren kontra bildua. Ezagun zuen lepo-hezurra behar zuela. Kolpe txar bat.

– Itzal gorri bat etorri zait gainera.

Gidariak nahi zuen jendearen aurpegietan atsegin, samur, laket zekiokeen zerbait irakurri eta pantaila zuri bat besterik ez zen bisaia bakoitzak eskaintzen ziona. Trokazulo ikaratu bana begiak. *Bakarrik hago*ka ari gintzaizkion isilean inguruan ginenok. Igerileku parean jendetza handia bildua zen udaltzainen autoa iritsi zenerako.

Ikusi nuena kontatu nien ertzainei hotz-hotzean, beroki gorriz jantzitako neskatoa ero moduan munduaren karel batetik bestera korrika batean. Gogoan behin eta berriz osatzen nuen betiko koskatua zen arrautza haren oskola, ispilu haren kalma zuria. Ez alferrik.

Aita ikusten nuen igerilekura inguratzen udaltzain batek besotik zekarrela, aita ikusten nuen lehenago tailerretik irteten, aita ikusten nuen ondoren amari esaten, aita ikusten nuen nire aurrean, tapakia esku artean, aspaldi aienatutako ohe bateko estalki ahantzi bat bezala hartuta, epaitegiko langilea albotik berbetan ari zitzaiola. Eta hantxe, murmur gor batean Urola ibaia guztiok goitika egindako behazuna bildua balu bezain uher zetorren; zihoan.

Hizketan igarri nion gidariari zestoarra zela. Handik puskatera esan zidaten nola ibili zen. Burua nahastuta, orduak nahastuta.

Sanjuandegi auzoko jubilatuen tabernan egin nuen topo berarekin hurrena. Ezagutu egin ninduen.

– Egunero ikusten haut autobusarekin pasatzen –esan nion hurbildu ahala–. Zigorrik eman al ziaten?

– Hobe bai; ez ninduten errudun jo.

Ezpain-mintzak ardoak nola belztu zizkion erreparatu nion.

– Beste bat hartuko duk –esan nuen.

Jose Antonio Agirre plazan trikitilariak kioskotik erromerian erabilitako puskak jasotzen ari ziren.

Hildakoaren etxera joateak egin zion bentaja aipatu zidan lehenbizi. Politto loratuta zegoela iritzi nion; biok ere ez genbiltzan lehorrean.

Hileta egunean umearen gurasoak bera kontsolatu ezinik ibili zituela aitortu zidan. Irri tristea erne zitzaion gauari eta nik ardotan idatzita irakurri nituen gidariaren hitzak.

– Latzagoren bat gertatzen zaianean kenduko zaik harra –irten zidan.

– Hi haiz hi putakumea.

Bihurritutako milako bi bota zituen barra gainean, destainarik gabe. Kopa bat eskatu nion tabernako neskari bakartu nintzenean. Zer edo zer abesten saiatu nintzen, oihu batzuk egin nituen, gora batzuk ere bai... Bakarrik. Ez zegoen gaizki Sanjuandegiko jaiei amaiera emateko.

Neure itzala arrastaka garraiatu nuen etxera halako batean. Zer egun zen ekarri nuen gogora. Atea bildu eta bi eskuekin ferekatu egin nuen, lipar batez baino ez, ama banu bezala.

Hozkailua ireki eta hutsik kausitu nuen.

Katuak

Hala zeritzan itzultzen ari nintzen poema luzea, *Katuak*. Europa zaharkitutik ari nintzaion Rio de la Plata handiari begira poesiaren leiho okerretik. Ez dakit nondik nora hartu nuen poema hura itzultzeko mandatua. Testu pragmatikoetan trebatua nengoen eta ordura arte literaturak ez ninduen batere tentatu. Aukera izatera lehenago hartuko nizun merkataritza txostenik tristeena edota lege-egitamu aspergarriena literatur bitxirik zoragarriena baino. Literaturak, izan ere, nahiz eta itzulpen hutsa izan, zeuretik jartzea eskatzen dizu, eta neure zerak neuretzat nahi ditut nik, inoren aurrean agerian jarri gabe.

Seguru lan hura hartzean maite-erakutsi modukoa egin nahiko niola norbaiti, baina dagoeneko ahaztu zait. Nire oroimena orbel-meta bat da hego haizearen mende kontu horri dagokionean, nahigabeko autodefentsa moduren bat izango da agian. Baina akordutik joaten ez zaidana itzulpen harekin hasi eta lasterrera nire bizitzak eman zuen bira da.

Adarrerako etortzen zitzaidan Dabid kafe garaian beti edo gehienetan. Aurrez hitzartutako adar-jotzea izaten zen hala ere, elkarri eztena nola sartu ibiliko ginen hasieran, ondoren, txantxen aitzin-solasa gaindituta, geure kontuen gainean hitz egitera pasatzeko. Batzuetan beste lagunen bat ere biltzen zitzaigun kafea hartzeko plazako tabernetara. Txandaka, egun batean Eperrarenean hartuko genuen eta hurrengoan, berriz, Ttanttakan, berdin udan nola neguan. Laurogeita hamalauko udako bazkalondo batez –baltseroen auzia puri-purian zelako dakit– solasak Latinoamerikara aurrena, eta handik gutxira itzultzen hasia nintzen poemara ekarri gintuen.

– Ez zekiat ezer baina orain derrepente ematen dik denok atzo jaioak garela. Gorrotorik itsuenetik zaletasun itsuenera pasatzen gaituk bestela bezala.

Dabid gaiztoz ari zitzaidan, zeharbidez orain-dik. Hura ere, ni bezala, Golkoko gerrarenaz geroztik bururik altxatu ez duenetakoa da. Uste izan genuen Hussein-en gezurrezko tankeak aski izango zirela yankeeak behin-be tiko tronpa zitezen, lehenago Berlingo Harresiari izan genion fe-

dearen pareko xalotasunez. Baina alferrik, mundua txilindro bizkorregia gertatzen zitzaigun eta azpian harrapatzen gintuen nahi baino sarriago. Kafea hartzea, bestalde, beti izan da jardunerako aitzakia polita.

– Orain poesia itzultzen hasteko kopeta al daukak?

– Pasaidak azukre koskorra –erantzun nion.

– Ez zagok ba lehenagoko lanik!

– Tenplatu hadi, aizak! Enkargu bat besterik ez duk, denborapasa moduan hartzeko asmoa diat.

Galdera lotsagabeari gezurrarekin erantzuteari ez diot larria irizten. Zeukan lanak zer-pentsan ibiltzeko denbora asko uzten zion Dabidi. Bere aita zenak kamioi txiki bat, *Arin garraioak*, eta izaera zorrotz eta, inoiz, sesiante hura utzi zizkion. Epe motzean erremediorik ikusten ez genien gaiak genituen kuttunenak geure hitzaspertuetan. Orduko hartan ez zegoen erraz etsitzeko, gehiago nahi zuen jakin, nik neuk ikusi ez nion lilura bilatua zion *Katuak* poemari itxura batera.

– Norena dela esan duk poema hori?

Esaten nion estreinako aldia zen arren, Francisco Urondo delako bat aipatu nion, argentinarra zela, besterik ez, hori zen artean nekiena.

– Ikusiko duk, horrela hasten ditut. Gero, konturatu orduko, intelektual nazkagarri bat bihurtuko haiz. Aditu ondo zer esaten diadan, irratiko tertulietarako deituko diate eta prentsako zutabeak idazten hasiko haiz, hire iritzirik gabe munduak aurrera egiterik ez balu bezala.

– Benetan ari al haiz?

Barra-aldia zuenean Dabid beldurtzekoa jartzen zen. Ez nuen lan handirik izan haren argudioak errefusatzen, baina ezin izan nuen kendu solasaldi hark sortu zidan mikaztasun kezkatua kirioetatik. Lehendik ere ezagutzen nizkion antzeko kasketak. Esan liteke bere nortasunaren ezaugarri behinenetakoa zuela.

Etxera iritsi bezain pronto *Katuak*etik ordura arte euskaratutakoa gainbegiratu nuen eta zaramaontzira bota nuen. Orijinala hartu eta Dabidi eman nion biharamunean.

– Horra, sartzak nahi duan tokitik.

Egina zegoen kaltea. Beranduegi jabetu nintzen obsesio bat ari nintzela mamitzen, nire

lagun minari egin niezaiokeen oparirik arriskutsuena egina niola. Aurrerantzean Dabid sakean izango nuen eta ni errestoan ia beti, erreferari traketsa.

Ez Dabid eta ez ni ez ginen sekulan militante izan, adiskidetasun sukartu eta baldres samar batena ez izatera. Kontua da lehia-antzekoa eragin zigula bioi afera bitxi hark. Madarikazio baten menpean ikusten nuen neure burua, txango luze batean auto-stopean Charles Darwin hartu eta abagunea baliatuz, determinismoaren apostolu egin izan banindu bezala sentitzen nintzen, eta banekien ostera haren azkenak adiskiderik minena galtzea ekar ziezadakeela. Tema hartua zuen. Han-hemen Urondoren berriak biltzeari eman zitzaion Dabid. Isilean. Eta bete-betean, sosegurik gabe.

– Jakingo huen noski, militarrekin tiroka hil zela?

– Urondo? –azkenean ahoskatu nuen aspaldian gu bion artean sartuta zebilenaren izena.

Urrestillako Ana Mari tabernako atarian geunden irail zoragarri hartako gaugiroaz gozatzen.

Nuarben afalduak ginen eta garagardo bat opa nahi izan genion geure ezintasunari.

– Ba al dakik gauza bat? *Katuak*, poema horrek bizimodua aldatu zidak.

– Bazekiat; niri ere bai. Ederki izorratu zidaan iritzi-artikulugile izateko aukera. Ez zidatek sekula irratiko tertulia baterako deituko.

Hartzeko txanda heldua zitzaidala uste nuen.

– Ameriketara noak, Buenos Airesa. Bazeukaat kamioia nork erosia.

– Eta ama?

– Tolosako lehengusuak jasoko dik, hitz egin-da zeukaagu.

– Ederregia duk poema hori, horregatik bota nian nik zakarretara.

– Nik ezin izan diat.

– Eta han zer egin behar duk?

– Ez zekiat; hik zer egin behar duk hemen?

Ana Marineko txori bitxiak txistu luze bat jo zuen kaiola bazterretik, tren aspaldi nasaratu baten irteera iragarriz bezala, eta ortziko izar guzti-guztiak guri begira sumatu nituen. *Dabid, ez duk ostiarik ulertu!* esateko gogoa eztarriko

zuloraino etorri zitzaidan; eta ez zait behin ere damutu orduan isildu izana.

Joan den astean jaso nuen Dabidek bidalitako pakete bat. Esaten zidan Argentinan ezin zuela bizi, zabalegiak zirela lur haiek bere bihotz zimelarentzat eta bazihoala handik, ez zidala esan nahi nora, izango nuela bere berri. Horrekin batera itzulpen bat egingo nion eskatzen zidan besterik adierazi gabe. Oharrarekin batera neuk duela bi urte luze hari emandako poema heldu zait, *Los Gatos*.

Eman handiko ibaia osatzen dute bertso-lerroek paper horituaren zimurretan barrena. Dabiden eskuek xeraz behin eta berriz gozatutako hitzak dira. Maitazarrez pausatu ditut hatzak ordenagailuko teklen gainean, banekien zirrara eragingo zidana lehen hitz horrek, eta idatzi egin dut. *Katuak*.

Bizion oinok

Aitaren zerraldoaren atzetik gatoz lau anaiok. Hego-haizearen hegaletan goaz neguak bihotzean falta duen orbela zapaltzen. Plazatik abiatu gara. Danborradako entsegua da gero, festetarako jarri duten txurreria itxita dago oraindik. Hildakoak katabutean kabitzen ez direnean estutu egiten dira, zapuztu egiten dituzte, torturatu, eta jakak moztuta egoten dira bizkarrean errazago janzteko, eta oinutsik egiten diote aurre betikotasunari, ezpainak pegamentuz itsatsita.

Larri eutsi ahal izan diot aitaren zamari eliza atarira eramango duen autoraino. Eskuan daramagu bizkarrera ezinda. Ez dut kanpai dandarik aditu, plazara orduko korporazioa eta banda zeuden gure aitaren zain, eta isiltasun gizen bat mazeroek zaindua. Joxe Iparragirreren begi nekatuetan entzun ahal izan dudanez *betikoak falta dituk*.

Gorputzaren atzetik etxekoak gaude, gero udaletxea, buruan Azpeitia erdia lotsatzen duen adina beste erdia zoratzen duen alkatea dela,

eta banda da azkena. Alkate-doinuari ekin diotenean poztu naiz ama etxean geratu izana. Kale bazterretik begira dauden umeei kostata joango zaie akordutik gaurko eguna. Plaza Txikirako bidean txapela erantzi du Genaro Azpiazuk eta paparrean behera ekarri du malko beltz handi bakar bat balitz bezala. Eliz kaleko sarrera estuan musikaren indarra biderkatua airean goratzen da, herri oso bat dugu begira, atzetik ez datorkiguna kale alboetan da. Asmatu nahi nuke zaunka ari den zakurraren izena. Bat batean delkoa bustita aita daraman autoa bertan plot geratuko balitz... Agirreneko denda barrutik erostunak babesik gabe sumatzen ditut Chopinen hileta-martxaren karietarat isilik, une batez inauteri jaiak aurreratu direnentz begiekin galdezka. Benito zulogileak esanda dakit elizarako bidean zela une horretan gure aita gaitzizen itsusiz izendatzen zuen hura, kristau onaren legez zeruan gerta dadila opako dio gorrotoak behazuna jango badio ere, aita zenak ere opako zion horrenbeste. Malenako Herrena izan da barkatu ez dion bakarretakoa, ez dio barruak agindu, antza,

onberatasun eraso horrekin bat egitea; ulertzen diot.

Urteak hastea besterik ez du egin eta aurrerantzean bestelakoak izango dira gure egunak, hainbeste bandera ikusiak diren balkoiak hutsik daude ia denak. Gure aita hil eta hamar egunera Hernani txiki baten traza hartzen hasiko da Azpeitia, larunbat gauak kaleko suak eta Poliziaren tiroen danbatekoen oihartzunek jantziko dituzte. Aspalditik herri hilaren fama izan dugu, ezer ez dela gertatzen hemen santuren batek bedeinkatuta ez bada. Eta santuz osatuta gabiltza. Gure aita alkate zela hil zen Franco, faxistek nazionalistegia eta abertzaleek Francoren garaiarekin lotuegia iritzirik utzi zuen kargua, jarraitzeko behar besteko babesik gabe, zetozkeen garaiei enbarazurik sortu nahi ez eta.

Uztarri tabernako atetik agur egin dio Anttoni Uzinek gure aitaren gorpuari, lapikoa sutan utzita atera da bandaren soinuaren deira. Lagun izandakoen etxe aldera joan zaizkit begiak, ilunbe honetan beltz behar du asunak, garoak, goroldioak Abitaingo bidean, alargunen ibilbidea, umezurtzen etorbidea, gurasoen etorbidea...

Anaia batek eta nik eskuargia daramagu patrikan, duela bi urte, abenduan, izeba zaharra hil zenean bezala ez ibiltzeko zuloarekin moldatu ezinean, Benitori linterna ekartzea ahaztu zitzaiolako. Gaurkoan ekarri du.

Abadea etorri zain egon gara eliz atarian hilautoaren atzeko atea zabalik. Sei lagunen artean eraman dugu katabuta aldare aurreraino oinak aurretik direla, han orga gainean jartzeko. Txaro Epelde gaur jabetu da lau anaiotako bakoitza nor garen, ezagutu ezagutzen gintuen, baina zaharrena eta gazteena gure aitaren seme ginenik igarri gabe. Ate nagusia zabalik, mundu oso bat dagokigu begira. Errosariorako etorritako jendea ikusita nabarmena da hileta handietarik dela gaurkoa. Gure herria ulertzeko modu baten ordezkari aurreratua genuen aita, eta zeru eta lurrak ikusteko modu zabal onartutako horren omena eta gorazarrea jasotzera doa. Familiarekikoak, jabetza pribatuarekikoak eta estatuarekikoak prestutasunez bete zituenez eskerrona nahi dio adierazi herriak, merezi besteko despedida egin. Inondik ere gizon handia izan da gure aita, zerraldoa daramagunok dakigu inork baino

hobeto hori. Migel Arrutik, sakristau lanetan dabilenak, zuzendu gaitu aita behar bezala paratzeko. Kolokan bezala geratu da hilkutxa aurrena, lurrera erorita ikusi dut gure aita, aingira batek bezala esku artetik labain eginda, berriro kutxaratzearen ikuskizun tristea, eta jabetu naiz ez nintzela bakarra, bi anaia elkarri estu antzean begiratzen harrapatu ditut. Erdiratu dugu zerraldoa apur bat eta lasaiago egin ahal izan da negar aldare aurrean.

Gure ondoren heldu da elizara bigarren segizioa. Hala ikusi du kalean behera Genaro Azpiazuk Maria Calvoren zerraldoa familiaren bakardadeak lagunduta. Jende asko eta askoren bizkarraren atzetik iritsi dira. Laster antzeman dio Joxe Iparragirrek hilkutxa biak direla berdin-berdinak, zerbait dotoreagoa espero bazuen ere Silvestrerentzat... Errosarioa hasi da ondoren eta bukaeran entzun ahal izan dut kanpai hotsa hiletara deitzen: dan dan dan dan... aireratzear den hegazkinaren azken deialdi presatuaren itxura hartu diot. Maria Calvoren familiakoak gure aurrean jesarri dira, zinegotzien atzean. Benito zulogileak kontatu zidan, izan zela euren artean

bat meza ostean jubilatuen tabernan ipurdiko hotzagatik ikusi zutena, zinegotzi karguak emandako prestutasunaren zamaz edan bide zituen basoerdiak, kalte egin ziotenak gorritik ala beltzetik edandakoak izan ziren asmatzeko gauza ez zela.

Meza hasi orduko hor gabiltza denok abadearen aginduetara oraintxe zutitu eta oraintxe eseri, aerobik saio baten antzera. Hemeretzi apaiz kontatu ditut, sakristaua kontuak egiten dabil bere kautan, zenbat etorriko ziren gure aitari laguntzearren eta zenbat bestearengatik. Gorputz-bidea buruz dakigu urtetan aurrera goazenok, hiru mila urte daramatzagu hildakoei lur ematen, biziongandik urrunarazten. Hilerriratuz gero esparru pribatua amaitua da, hilerria berdin deserria, abandonatze kontrolatua. Hiletaren mekanika ke eta su ari da, aurreikusi egiten dut aita berriro autoratzeko lana, gidariaren belarriak ari zaizkit esaten, *beti-betiko zorionar*en hitzak gogotik apartatu ezinik bere ironia ankerrean eta ur bedeinkatuaren zipriztinak zerraldoaren edergarri. Beobide irudigile zumaiarraren

San Sebastianen irudira doakit begi-bista, gaineko ganga margotura.

Erretorea hildakoez mintzo da, bi pertsona desberdin heriotzak elkarren ondora ekarri dituenak. Apal, parez pare, bata eta bestearen aurrean jarri ditu eliztarrak. Erlojugilea, herriko semea, alkate izana...; eta Maria Calvoren eskua hartzera egin dut.

Trenez iritsi da Espainian oraindik gerra den garaian, bere herrian etorkin, lan bila eta faxisten mendekuaren begiari ihesi. Orduko Azpeitia erakutsi dit abegi onez, kale mehar hauexek, baratzeak ibai ondoan, lantegiak, kartzela, goiko errota, kasinoa, gure aitaren etxea. Eta Mariarekin egin dut Bizkaiko meatze gorrietan barrena Trapagako La Arboledarainokoa. Han ziren obreroen etxeak larderiaz egunerokotasunari aurre egiten. Eta zumardian, Pablo Iglesiasen erretratuaren parean ari da dostatzen ume saldoa. Maria ere bai. Eliza gorago da, maldan aurrera eginda. Bertako nahi dut, hustutako meatzearen pisua gainean dela neure egin, mea lurpean bezala daukadan etxe barruko urruntasun hori. Ezin naiz hemen bertatik ez naizena izan bat-ba-

tean. Maitasunez libratu dit eskua Mariak eta agur egin diot. La Arboledako iluntzea barruan daramat.

Bakartu gara, aitari lur ematen ari gara zangoen aldeko sokatik tinko eutsita orain. Lurpean gorde dugu altxor bat bezala, samin-hazi antzu bat bezala. Bere fruitu mikatza, denboragarrenean, bihotzean baino erneko ez dena jakinaren gainean. Setaz, izukaitz, uztaua bezala.

Astegun buruzuria da Azpeitiko kalean. Inor ez dabil. Ilargi laurdenak hautsitako kristala ematen du gauak.

Manexak

Atseden bila jo genuen Zuberoara lagunak eta biok. Behiala arrotz eta beldurrezko elezaharren lerro eta hots artetik jaulkitakoak ziruditen lurrok, ezin atseginagoak bilakatuak ziren aspaldi, bizimodu erosoari eta ongizateari begira eredugarri.

Asko ziren, opor garaian bereziki, hartu nahi zuenarentzat eskura jarriko zitzaizkion kaleko etxe, baserri zein landetxeak. Sasoi batean zakartzat edukitako bertako jendearen aiurria, orain, ostera, esker oneko eta otzan agertuko zitzaion manexari. Eta jendea bera bezain abegikor eta osasungarri irudituko zaizkizu bertako usadioak eta eguraldia. Jan-edanean goi mailako eskaintza damaizu Zuberoak, herri kantaria da, alaia, eta aukeran merkea. Inondik datorren turistarentzat zerua.

Geure puskak ostatuko gelan antolatu ondoren, Mauleko plaza, gaztelua eta inguruak ikuskatzera irten genuen. Zenbait etxetako armarri eraitsiek eta bala zuloek garai gordinagoak sala-

tzen zizkiguten, hala ere, hilabetetako erresistentzia gotorraren testigantza berrienak ziren. Izan ere, arrakala sakonak utzi zituen gure Independentziako Gerrak euskal lurralde guztietan. Baina Zuberoan, beharbada, inon baino areago. Eta Zuberoan, Maule bakarra. Independentzia erreusitu zuen Euskal Herriak, ikaragarri penatu ondoren, noski, aurreikusita zegoenez. Bakea bertakotu zen azkenean. Urteak ziren Zuberoan ere azken hildakoak areka zuloetatik batu zituztela, batu genituela, etxeak bota edo zaharberritu, errepideak konpondu eta zubiak jaso zituztela.

Eliza ondotik Maitia karrikan zehar errekara iritsi ginen. Bidean errotulu eta kale izenak oro, zubereraz, Zuberoako euskalkian idatzita zeuden. Gobernua, nazioko hizkuntza ofizial izendatzeaz bat mendetan erdietsi ezinekoa lortze bidean jarri zen, hots, xiberotarren behin-betiko integrazioa.

Opor gosea eta maitale berria gozatzea baino kitatu beharreko zorra nuen nik Souleko lurretara ostera egitera behartu ninduena. Zuberoa askatzen hilabete latz, anker, eramangaitzetan bo-

rrokan egitea egokitu zitzaidanean oso bestelakoa zen ikusmira. Okupazio indarrak neke gorrien ondoren egotzi genituen gure asaba zaharren lurretik. Xiberoko Bataila deituak odolez belzten ditu harrezkero gure eskola umeen historia liburuak. Usu nire loa ere bai. Sasoia ez ezik anaia txikia galdu nuen nik han.

Egia izanik ere Irati tematu zitzaidala aisialdi bat Zuberoan pasatzeko, nik barren-barrenetik entzuten nuen ataka estuan ezagututako lurrak harzara zapaltzeko dei errimea.

Elkarrekin emango genituen lehen oporrak ziren, parada ezin hobea beraz, sei-zazpi urte lehenago gudari lanek ekarritako lekura itzultzeko. Bolondres ibili ginen. Desmobilizatu gintuztenetik ez nintzen bertaratu. Garai bateko joran askatzaile hura majo apaldu zitzaidan hango eskarmentuarekin. Independentzia ere –garaipen handia– etxean ospatu nuen, nire Azpeitian, artean gerraren orbanak haragi bizitan nituela eta garai bateko amets suharren zarpailak kudeatu ezinik.

Krimenaren lekura itzuliko gara ekiten nion txantxaz eta antsikabe Iratiri, haren galderaeraso setatiari amore emanez, bidaiaren kariaz

nire gerrako ibilerak berritzen nizkionean. Zelan atzendu jendarmeriaren hartzea Belzune etorbidean, Victor Hugo karrikan barrena gaztelurako malkar galgarria... Orain aldiz Xiberoko arno gozominetarik dastatzeko parada genuen Victor Hugo karrika berberean. Beti gordeko du lilura berezia edonorentzat, izua eta irrikaren aho bikoan egindako ezpata dantzak nola, inoiz heriotzaren geriza sumatutako lekuak.

Ez nuen gustuko gerra aipatzea. Gerrak eta gerrak izaten dira. Gurea aspaldi ikasitako tasunari atxikiz senide artekoa gertatu zen. Baziren okupazio indarrak, kanpo-arerioak nolabait, eta baziren Euskal Herria erdi bi egin zuten etsaigoak. Mingarri zitzaidan hainbestean jotzen nuen harrokeriaren seinale, inorekin, besterik gabe, denborapasa belaska moduan, gai hori hizpidera ekartzea. Gehiegi sofrituak ginen. Ahal nuen guztian saihestuko nuen. Gehiegi ginen sofritutakoak. Isilean eta bakarrean nintzen neure nolahalako porrotaz eta garaipenaz ase gura. Han ibiltzea hildakoen gainean ibiltzea zen niretzat nolanahi ere, joandako garaien gainean jasotako garaiak, joandako uren ondoren sortutako ura...

Gisako gogoetak nerabiltzan Uhaitzandi ibai ertzeko petril gainean eserita, Iratik maite ninduela esan zidanean belarrira. Egunero, arnasa bezala behar izaten zuen bere maitasuna aitortze hori. Ni ez naiz horrelakoa. Ortzemuga gorritzen ari zuela, han gordetzen ari zen hegazkinak argi keinukariaz diosala egiten zigula arratsean, han ere izango zirela maiteminduak urrun gozoetara buruz zihoazenak, gose ginela-edo elkarri esan eta ostaturantz jo genuen eskutik helduta.

Batetik besterako garraioan jakiak hozteko moduko mahai erdi huts baten bueltan eman ziguten afaltzen. Mutur batean ostalera, etxeko andrea eta izeba xahar bat, Tuteratik etorritako bi emakume, nafar jator horietarik, eta gu geu geunden. Beste muturrean, mahaiaren mendebaldean, neskame burugorriaren tokia zegoen, gu zerbitzatu ahala bere bakardade handiaz betetzen saiatzen zena.

Aldarte oneko hartu genituen giputzak ginela eta ostalerak egin zizkigun txantxak. Gose ginen denok, eta ondo jan eta edateak oso biztu zizkigun barruak. Kafea hartzen ari ginela sortu zen isilune bakarrak, ordea, ostaleraren bekokiare-

kin batera ilundu zigun gaua. Itun, samintasuna zeriola gerra aipatu zuen, bera bizirik atera zela baina, maiz, hildakoei bekaitza ziela esateko.

Guztiz desegokia eta lekuz kanpokoa iritzi nion gai hura plaza hartan eta era hartan hizpidera ekartzeari. *Saltzaile txarra* egin nuen neurekiko. Hala ere, gizonezko bakarrak izateak bion artekoa bilakatu zuen auzia hein batean, beste ezeri baino nire gizontasunari zuzendutako puntua ematen zuen, nik neuretzat hartu nuen, baina ez nengoen gisako lore-joko eta lehia galaietarako. Banuen lehenagoko gizontasun erakustaldirik burutzeko.

Berehala giroa arindu nahi izan nuen giza ankerkeriari buruzko aipu orokorregiekin, berariaz isildu nuen, haatik, ni ere guda haren usain sarkorra bertatik dastatua nintzelakoa. Jarriko nizkioke argi eta agerian neure aldian Maulen ikusitako zenbait, Bildoze, Mithikile edota Arüeko bazterretan jazotako hamaika ibilera triste. Larrabileko Hondamendia. Baita orduko hartan nazio askapenarekiko xiberotar askok erakutsitako uzkurtasuna eta zekentasun neurriaz esa-

nen nioke zer edo zer. Etsi-etsian isildu eta bakea.

Berandura arte luzatu zitzaigun txolartea, mokoka gai askori helduz, axal-axaletik guztiak ere, zer gerta ere. Etorri berriak ginen batetik, eta manexak bestetik. Jendetasunak ez zigun agintzen besteren ur sakonetan murgildu eta palastaka hastea.

Ostalera bere emaztearen aldean hiztuna zela konturatu ginen, izebak berriz ez zuen hitz erdirik aterako zuzenean galdetuta ere. Pentsatu genuen zahardadearen ajeren batek eragotziko ziola hizketa nolabait. Irati ez izan, ordea, aieru hutsekin konformatzen denetakoa, eta betbetan itaun egin zion ostalerari izebaren balizko gaixotasunaz. Mahaitik altxatzen ari ginela harrapatu gintuen ostatuko jabearen erantzun zehazgabeak, *Gerra ez da amaitu berarentzat*.

Esne-mamitan eman genituen hurrengo egunak, gelaz barrukoak bezain laket eta gozo gertatu zitzaizkigun gelaz kanpoko orenak. Maiteberritan akatsik ez dago, eta oreka zorabiagarri hura kordokatu zuen indarra sortu ez balitz, nago sendo legokeela oraino.

Hala, oporrak amaitzeko hiru egun baino falta ez zirela etxeratzeko tenorea heldu zitzaien gure bi ostatukide kanpotarrei. Uneari zegozkion konplimenduak bete genituen, helbide trukea egin eta hurrengo batean Iruñean –eremu neutralean– elkarrekin egun bat pasa behar genuela agindu ere bai. Ostatu atarian eskuaz adio eginez egon ginen taxia begi-bistatik galdu genuen arte.

Pozik nengoen, orain Irati eta biok ginen ostatu koskor hartan kanpotar bakarrak. Hartara askatasunaren tamainak zabaltzera egin zuen apur bat gure baitan.

Bazkalostean kamamila eskatu nuen, neskameak ekarri zidan gelara eta, eskerrak emateare-rekin batera, osteratxo bat egiteko ibilbide baten eskea galdatu nion. Goitik behera muker begiratuz aho bete hortz utzi ninduen.

Trantsituan hoska hasi nintzaion alferrik, naturaltasun osoz jarraitu baitzuen eskaileretan behera, nire ahoak txintik atera ez balu bezala. Iratiren alboan etzan nintzenean garrantzia kendu nahi izan nion gertatutakoari, tematu egin zitzaidan ordea, eta kalerakoan ugazabei kexua

azalduko niela agindu behar izan nion bakeagatik.

Nahikoa berandu, gorputzaren atseden eta atsegin premiak asetu ostean hustu genuen gela. Behean ostaleraren emaztearekin egin genuen topo, neure apetaz baino Iratik besoan egin zizkidan atximurken kausaz, neskamearen portaera zela eta kexu agertu nintzaion.

Eta ez genuen ezer aurreratu, alderantziz areago, futitu zitzaigun, hark ere ez entzunarena eta ez ikusiarena egin baitzigun garbi asko, jangelarako bidean gure bistatik kenduz.

Durditu antzera irten ginen kalera. Ibai ondoko ohiko txangoari lotu gintzaizkion barruak lasaitzearren. Maite nuen neska hura, baina horrekin ez dago konpontzerik dena. Nik eman ez niezaiokeen argitasunen bat galdatzen zidan Iratik. Ez nuen ulertzen zer oker egin genion jende hari, lekutan ziren hain gora jasotako xiberotarren jendetasunaren omena eta sona. Susmo itunagoek eta sakonagoek joa nindukaten ni ordurako. Balizko loturak egiten hasia nintzen mutiritasun kutsagarri hartaz, banekien isilean ahogozatzera etorritako nola halako garailearen itzulera-

ri mikatz iritzi behar niola oraindik. Zelatan jarri nintzen, zer-suma.

Atzera, herrira gentozela bide ertzeko baratzean jorraketan ari zen gizon bat. Iratik, gaiztoz, ordua galdetzearen aitzakiarekin hitz egin zion. Birritan galdetu zion eta bere begi handi biekin zer edo zer egin behar nuela adierazi zidan.

Haserre itxuran hurbildu nintzaion, esateko ea hango usadioen arabera, emazteki bati erantzuten ez diona –dama hitza erabiliko nuen beharbada– gizasemetzat jotzerik badagoen. Ulertu nion. Hala uste dut. Atzera egin nuen bizkor zemaiz aitzurra jasotzen ikusi nuenerako.

Ostatura heldueran harreragelan jesarri ginen afalorduaren zain. Ez zen kristaurik ageri baina sukaldeko atea txirtiriki zegoen. Afaria gertatzeko ohiko zarata arruntez gainera beste zerbait bitxiagori ere eman nion belarria. Izeba eta etxekoandrea hizketan ari zirenetik ez nuen ezer ulertzen. Ez zerabilten Maule-Lextarre aldeko üskararik, bertze mintzaira molde bat baizik. Eztarri hizketa erlatsez eta surmur itoz osatua ematen zuen jardunak. Iratiri egoera hura eta nigan sortu zuen asaldura ezkutatzearren afaldu

aurretik elkarrekin dutxa bat hartzea proposatu nion.

Mahaira bilduak ziren afaltiarrak gu jaitsi gineneraको. Isilik jan genuen denok eta ostalera bakarrik geratu zenean, Iratik kargu hartu nahi izan zion gure kontrako eraso zuzentzat zeukan mututasunarengatik. Adeitasun zuriz erantzun zion. Zuberoa xiberotarren borondatearen kontra *liberatu* genuela. Euren hizkera galzorian zegoela independentziako gerra amaitu eta zuberera hizkuntza ofizial bihurtu genuenean. Horrekin –gordinegi esatea ez bazen– lurraz gainera arima ere ostu nahi izan geniela, ezer gabe utzi nahi izan genituela, arrotza beste jenderik gabeko herria bilakatu genuela Zuberoa, ez gorputz eta ez arima, eta barkatzeko baina, orain beste gerra bat, bestelakoa, hasiurren zela.

Jarrera ero hori taxuzko argudioekin errefusatu nuen. Gogoan dut Euskal Herriaren aniztasunari begirunea eta batasunaren garrantzia azpimarratu nahi izan nituela. Askapen mugimenduaren huts historiko batzuk gorabehera, independentziaz geroztik Zuberoak izan duen guztietariko garapena eta hartu duen munta nazioaren

baitan. Nahi bada, garrantzi hori ekonomikoa baino sinbolikoa dela, kulturala, baina gurean prezisoago dela egun pastorala espartinak baino... Bide politikoen zabaltasuna eta malgutasunaren ondoan, boikot eta desobedientzia jarrerek bere-berea duten sektarismo antzua aurpegiratzeko gogoa ere banuen. Hasteko beta izan nuen ozta-ozta. Ostalera patxada ederrean jaiki eta sukaldeko ate ostean ezkutatu baitzen nire hitz bero eta imintzio sutuei muzin eginez. Tximu aztoratu eta zalapartaria nintzen maite nuen emaztekiaren aurrean. Gauza bat garbi zegoen ordurako, haiek izango ziren ostalerak guri zuzendu hondarreko eleak.

Irati ezjakin eta harrituari zutean eta zeharrean azaldu behar izan nion xiberotarrei buruz nekiena. Gizartearen eraketa aristokratikoak eta barne gatazka usuek –zelan bereizi erlijiozkoak eta sozialak– eragindako sarraski eta miseria aroak nabarmentzen ziren gardentasun ilunez. Emigrazioaren eta deserrotzearen erresuma. Gaua etorri zen eta isildu egin ginen.

Hurrengo egunean iluntzeko trena hartuko genuen. Ez genuen begirik batu. Ostatua zaunka

karrankari eta xuxurla sorgortuz mamitutako hotsek hartu zuten. Batzarra, batzar jendetsua ari zen ospatzen etxepe hartan eta ni zurtuta nengoen, ezertarako ezgai.

Zorrotz zainduak behar genuen. Karraskots eta apo-kunkun modu haiek arduraz beteak zeuden, ez nekiena zen biharamunean zer jarrera hartuko zuten gurekiko. Ostalerak iragarri zigun gatazkaren nolakotasunak kezkatzen ninduen. Ekintza zuzena hizkuntz boikotera eta kultur borrokara mugatzen bazuten jai zeukaten. Bestela gaizki ibili behar genuen handik onik irteteko. Xiberotarrek zuberera zapuztu? Euren hizkuntzaz beste egin? Euren nortasunaz beste? Erokeria. Erromantikotasun berantiarra. Igarriko zioten. Zebiltzan bideak harrapatuko zituen. Suizidioa aurreikusten nien. Zerbait hautsia nuen barruan.

Alboan sentitzen nituen Iratiren barruko arnasak, gogoeta larrietan murgildua. Goiza urratu arte isilik egon ginen halarik ere, bata bestearen beldurrari jaten ematen eskuarekin, kirioekin, gogoarekin. Kreole itsusi hura, mordoilo gaizto haren azken oihartzunak argi hastean aienatu ziren.

Hala ere, jardun ulergaitz hartatik Iratik zerbait ikasi ote zuelakoa eman zidan zainak orduan. Nora etortzekoak ginen behar bezala zergatik ez nion azaldu aurretik, zer egin genion jende hari galdetu zidan apal, batere suminduraric gabe, erantzukirik gabe, tristuraz, bertatik alde egitean bizi izandako etxea, hiria, hondarrekoz ikusten ari den segurantzia duenaren doinu etsiarekin. Itomena sentitu nuen, zama astun bat urdailean. Armairuko arropak maletara ekartzeari ekin nion sartzen nuenari erreparatzeke. Banekien erantzuten hasiz gero, lehertu egingo nintzena bestela.

Eguna gelan itxita ematea erabaki nuen. Iratiri esan nion. Goiz samar aterako ginen geltokirantz. Trenean jango genuen zer edo zer. Inor ez zen gutaz arduratu. Egun arrunt bati itsatsitako hotsak heltzen zitzaizkigun kaletik: autoak, oinotsak, kanpaiak, euria... Gero emango genuen parte.

Ordua heldu zela iritzi nionean, Irati besotik hartu nuen urduritasuna neure kolkoan gorde ezinean eta korridorera egin nuen tentuz. Mendiko labana handia neraman jakako patrikan, hala

behar izanez gero halabeharrari aurpegi eman eta azkenera arte borroka egiteko gertu nengoen, gudaritzako egunak berritzeko prest. Gure bidean, ordea, ez genuen batere eragozpenik idoro, franko utzi zituzten guk ibili beharreko lekuak oro.

Trena martxan jarri zenean hustu nintzen, ezin izan nion negarrari eutsi. Berriz ere, oroitzearen mina, lehengo galerak berritu zitzaizkidan, asko galdua nuen Xiberoko lur hezigaitzetan. Vodka kopa bi eskatu nituen eta hasi nintzen zuzpertzen.

Joanak ziren bi ordu amesgaizto hari ihes egin genionetik. Goizean goizeko galdera bi haiek izan ziren Iratik azkena hitz egin zidana. Orain lo gozotan zegoen. Shockari egotzi nion isiltasun itsua.

Etxera heldu eta irri-antxaz oroituko genituen txangoa eta gure ibilerak. Zuberotarrek gureak egin dituztela esango genuen lagunarteko bilkuretan, desatseginak eta esker txarreko kasta dela. Desagertzera kondenatuak. Gehienez ere bidaia agentzian erreklamazioa ezarri, paper batzuk bete eta erantzunaren zain egon. Besterik

ez. Zer ederragorik, turista epaitegian bere leinuaren garbitasunari eusten.

Gogoan zertzelada hauek eta antzekoak nerabiltzala Donostiara heltzear ginela iragarri zigun bozgorailuak.

Gure puskak hartu eta Irati iratzarri nuen. Urrunetik etorria ematen zuen, bat-batean toki arrotz batean esnatu zela. Sakon begiratu zidan begietara. Hitz egitera entseatu zen; ezin. Ahora zetozkion soinu karrankari haien ertzak eztarrian trabatzen zitzaizkion itxuraz. Eskaini zidan besarkadari ihes egin aurretik, xeraz, *maite zaitut* esan zidan. Ondoren beste hitz batzuk jaulki zituen, ulertu ez baina dagoeneko ezagutzen nuen hizkuntza batean.

Hagina

Iritsi orduko ihesi zihoazkiolako sentimenduarekin bizi zituen Gabonetako oporrak beste behin Aritzek. Urteak joan urteak etorri berdintsua zen dena, mende berria heldu eta ezer berririk ez, hirugarren milurtekoan oinak jarri arren urak bere bidean. Etsigarria zen, hamabi urte beteak zituen urrian eta zahartzen hasia zelakoa sinetsi egin beharko zuen. Urrun ikusten ziren oraindik –eta zein urrun!– 3000. urteko Gabon Zahar gauean laugarren milurtekoa agurtzera etorriko zirenak. Haiek zituen gogoan. Diosala egin nahiko lieke, baina bere borondatearen irismenarentzat askotxo jotzen zuen mila urteko tartea abendu epel hartatik begiratuta. Zeudela horretan, haiei ere joko zien noizbait euren oilarrak kukurruku.

Aritz miraz egoten zitzaion begira amari, sukaldean lanean ari zela, gehienbat neguko iluntzeetan, eta patata zuritzen ari bazen areago.

– Ama, munduari azala kentzen ari zara –esango zion.

Eta irri-antxarekin erantzuten zion amak.

– Begira, India erauzi diozu munduari... Kontuz ama, zakarretara botatzera zoazena Madagaskar da, gero!

Eta amak galdetzen zion lagunik ez zuen arkupeetan, ibiltzeko plazan aita etorri arte, baina ez hurreratzeko ibaira, beheko haizeari egiteko kontu, txakur-eztulik ez zuela nahi gauean.

Azkenean kalera egiten zuen Aritzek, mundua zuritzeko patatarik gabe geratzen zenean. Zortziak aldera arte beti izaten zuen norbait. Eta etxerakoan egiten zuen berekiko beste zenbat urtez eman ahal izango zion musu aitari oherakoan lotsatu gabe. Baziren bi urte aitaren magalean jartzen ez zela afalostean eguneko kontuak konta ziezazkion.

– Ez zegok arreba txikia edukitzea adinakorik lotsa zer den ikasteko –azalduko zion Eneko lagunari biharamunean, tren geltoki inguruan zerpentsan zebiltzala–. Bazekiat ume zahar baten bekaitza besterik ez dena, baina boladatan txikitu egingo nikek.

Arreba Lierniren garaipen keinua osatzen zuen buruan, iluntzero aitaren magalean jesarri,

musu eman eta haren bizar lakarrak bere azal leuna ukitzean, eta ostikoz jo zuen hanka parean zuen harri koskorra.

Etsaigoa baino igaro beharreko aldia jotzen zuen arrebarekikoa, penosoagatik gainditu beharreko gailurra, basamortuko garizuma. Aurrerago etorriko ziren gauzak bere onera, bazekien, baina bitartean sortzen zion minarentzat sendagarririk ez zuen. Luzetsita zebilen aspaldi samar.

Euriak goitik behera egiten duen legez, urak errenditu ezinik putzuak osatzen hasten diren unea legez, elkarri kontu txikiak eta handiak esateko tenorea heldua zitzaien bi lagunei Amuko zubira iritsi zirenerako.

– Aritz, kaxako umea naizen kontu hori egia duk –bo ta zuen tupustean Enekok, altzairutegiko kamioiek hautseztatutako belarretan irakurtzen ari balitz bezala–. Oporrak hartu genituen egunean esan zidaan aitak jasotakoa nintzela, jakiteko garaia banuela eta.

– Aitatzakoak orduan.

– Hori...! Aitatzakoak.

Lagun bien hitzak zubi gainetik ibaiaren alde euri-urak belztura jausten ziren. Loina baten

hegal zilarrezkoaren gerizak begitartea busti zion Enekori.

Uraren azalean amorruak aurpegiera antzaldatzen ziola sentitu zuen Aritzek, harrika eman nahi lieke han goian ortzia ezkutatzen zioten hodei isilkariei, zulatu egin nahi lituzke han behean ibai zola ezkutatzen zioten hodei herrestariei. Jende nagusia umeak baino lehen jabetzen zen egiez, beharbada lehenago jaio zirelako mundu honetara. Besterik ez. Eta ordutegi edo agenda afera hutsal hori aski zen nahi beste zekenkeriaz eta gupidabarik kudeatzeko egia larrien ondarea. Funtsik gabeko gauza, alukeria hutsa. Bat gehiago.

Eurek nahi zutenean joko zien beti ondoren zetozenei ezjakinaren lausoa begien paretik kentzeko ordua. Urdail zuloan korapilo itoa egin zitzaion, karnaba mutu bat irentsia zuen.

Beheko haizea atera zuen, gora begiratu zuen, dagoeneko Enekori bizkarretik helduta garai bateko lasaitasunez ibiltzerik ez zuela izango etsita. Hamabi urte. Beranduegi aukeran. Handi ari zen egiten.

Bat-batean, hango urrun epeletan behar zuten enaren abistuak nolakoak ziren gogoratu eta arin, zalu, zubian behera ekin zion korrika.

– Goazemak Zelai Luzera; zopak egiten irabazi baietz!

Enekok jo zuen begiz uharrien artean, baina Aritz izan zen eskura bildu zuena. Batzuetan bere altxorren berri ematen bazekien ibaiak. Urtetako garraioaren zamak gizendua zekarrela ematen zuen.

– Honaino etorri duk ba hau –esan zuen Aritzen eskuan zuen haginari begira–. Alea duk.

– Aritz, bota ezak zikinkeria hori!

Eta baietz zioen haginak bere zuritasun izunetik, botatzeko, ez hasteko jaberik gabeko hagin zahar baten peskizan. Ordurako sakelan zuen Aritzek, ordea, ibaiaren opariari nor bat bilatu behar ziola erabakita.

– Lasai Eneko, ongi gordeko diat.

Etxean, Liernik igarri zion bazerabilela zerbait. Aitaren igurtzi eta maite-maiteak ez zituen aintzakotzat hartu Aritzek. Gogoa urrun sumatu zion nebari afalostean. Behingoagatik, ez zion ardurarik, itxura batera, aitaren arreta eta xerak

arrebak bereganatzeak. Ezkerreko eskua patrikan, maindire lisatu berrien usainak liluratuta bezala logelara alde egiten ikusi zuen Liernik.

Bere zuloetan kabitu ezinean sentitzen zuen Aritzek bihotza. Arrebari irakasteko lezio txarra ez zuen eskuzabaltasunarena.

– Lagundu egin behar didan.

– Zertan? –galdetu zioten Lierniren apo-begi handiek.

– Honen jabea bilatzen –ukabila astiro irekiz erakutsi zion hagina–. Ibaiko harri artean aurkitu dinat.

Harridura zer da, gerta litekeenaren ziurtagiri bat besterik, horren aurresusmoa baino? Ezusteak kolore biziak zekartzan Lierniren masaileta-ra, eta une batez bertan pausatzekoa egin zuen.

– Bazekiat! –jaulki zitzaion barruko arnas batean, munduaren aho bakarrari falta zitzaion hagina hura zela baleki bezala.

Arrebaren poz hura zapuztea azkena zitzaion Aritzi. Haizeak eraman eta haizeak ekarri zuen Lierni zapata kaxa bi eskuekin helduta zekarrela bere gelatik.

– Hemen dago! –hatz gurien artean egunkari orri horiztatua eskaini zion nebari–. Aspaldikoa da.

Ia bi urte lehenagokoa zen paper hura. Aurreko milurtekoa. Aritzek susmoa hartu zuen bere kabuz frogatzeko moduko egia baten testigantza zetorkiola kazeta orri hartan gordea. Izaeraren taxua ontzen dizuten koska horietarik bat edo. Zena baino gutxiago joa zuen Lierni, antza. Bera misterio hartara jaiotzerako oinetako asko urratuak zituen arreba txikiak bidezidor haietan.

– Nondik bildu dun?

Begiekin jan behar zuen Aritzek. Mutil mardula ageri zen argazkikoa, elur maluta bakarra zerutik pausatua soro hartako berdetasunaren gainean. Zerraldo zetzan, ahoz gora. Atzean sagarrondo bi argimutil zituen. Albo batean txarrantxa-hesolak orduen eman gorria atzenduarazi nahiz.

Tiroa zuen buruan, pistola esku ondoan eta hodei beltz presatuek hartutako zerua gainean. Hagin bat falta zuela aipatzen zuen autopsiak. Hil-haginean zela edo hilberritan erauzia.

– Berea duk hagin hori.

Aritzek ez zuen kemenik eder zitzaion gorpu haren iruditik begiak jasotzeko, baina arrebaren hitzen kateek zeramaten gatibu.

– Berea duk hagin hori.

Plaza aldetik auto hotsa entzuten zen tarteka. Gaua zen eta norbait etxera heltzeko zen oraindik. Aritzek berotasun falta sumatu zuen abendu bero hartan. Aitzakia bat behar zuen Lierni besarkatzeko ohe ertzeko karelean, baina ez zuen kausitu. Eta ahalkez, aitzakiarik gabe estutu zuen Lierniren soina beso artean.

– Gauza bat ba al dakin?

– Bai, hildakoei ere utzi egin behar zaiek hiltzen.

– Horixe.

– Baina berea duk hagin hori.

Plazara begira jarri zen Aritz. Taxi geltokian jo eta jo ari zen telefonoa. Itxura harrigarria har zezakeen herriak inork espero gabe. Aski zen begiratzeko modu berritu bat, ordura arte erreparatu gabeko begi kantoitik antzaldatua ageri zen beti berdin jotzen zena. Nork bere eskuak adibidez, edo pentsamendua. Bat-batean bete zitzaion Aritzi botila zuen bihotza. Taxi bat ikusi zuen pla-

zara heltzen, isilik zen telefonoa, kalea hutsik. Belardi bat etorri zitzaion gogora, belardi bat gauean bere behia jagoten, leiho bat etxe bati begira. Lierniren begiak ate zabal bi iruditu zitzaizkion. Ez zen handik aurrera ausartu.

– Nahi al dun hiretzat?

– Ez duk gurea.

Isiltasuna artatzen egon ziren neba-arreba biak luze egin zitzaien tarte batez.

– Leirek eman zidaan –ekin zion Liernik orri tolestua atzera kutxatxoan gordez.

Arreba txikiaren logelatik joateko erari zoragarria iritzi zion Aritzek. Auskada larriz luze jardungo zitzaion haginka. Urregorria zen irribarre xume hura, agur esan gabe zihoan presentzia ezabagaitza. Nahita ere ezingo zuen inoiz gehiago bakarrik egon. Zeharo ez behintzat. Esku txiki haiek, argazkia, gaua, beti hor izango zituen. Oraina atontzen, josten ari zitzaizkion Aritzi.

Bost axola egunetan loak hartzen ez bazuen, aita-amak bere itxuragatik kezkatzen baziren bost... Argazki gordin bat zuen gogoaren muinean aitzindari, izena aurkitua zien gauzei, leku eta aurpegi bakoitzak aieru eta sentimenduak

iradokitzen zizkioten, eta bazuen non gordea sentimendu bakoitza.

Esan behar zion Enekori. Adiskidetasunak baduela odolak ez duen zerarik. Goitik behera ezartzen zaigunari gaina hartzeko modu bat badela. Hagin guztiei dagokiela zeini bere ahoa. Egon ez dagoela umezurtzik. Azken beltzean denok garela kalean bilatutakoak. Esan behar zion.

Biharamunean goiz irten zuen etxetik, bezperan bizi izandakoaren oin arrastoak gal zekizkion beldurrez. Kontuz eraman zuen hatz artean hartua Enparango zubiraino. Harrizko koskan gora igo eta burdinazko barandaren kontra tinkatuz esku ahurretik labaintzen utzi zion haginari. Elur pikor alea ibaian must egiten; euriak ematen zuen hagin zaparrada mozorrotua, elurte endekatu bat. Bristada eragin zion ur uherrari eta eskua euritan bustitzen utzi zuen.

Enekok zain behar zuen arkupeetan. Eguerdira artekoa elkarrekin emango zuten. Bizi-bizi ari zuen, hoztu egin zuen negu kiskali hartako giroa eta Aritzek kalean gora jo zuen aterpe bila.